




Buruko Osasuna (2014-2019)



2020ko iraila



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

I. SARRERA	3
II. OSASUN MENTALA	4
II.1. Sarrera	4
II.2. Osasun mentala Nafarroan	4
II.3. Osasun mentaleko aurrekontu-gastua	6
II.4. Osasun Mentaleko langileak	8
III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA	10
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	13
IV.1. Osasun mentalaren sustapena eta prebentzioa	14
IV.2. Nahasmendu mentala duten pertsonentzako laguntza	22
IV.3. Amaierako konklusioa eta gomendioak	46
ERANSKINAK	49
1. eranskina. Osasun Mentaleko Kudeatzaitzaren organigrama	50
2. eranskina. Aplikatzekoa de arau-esparrua	51
3. eranskina. Espainian psikosian goiz esku hartzeko programak: adierazleak	52
4. eranskina. Jardueraren bilakaera osasun mentaleko zentroyen arabera	54
5. eranskina. Osasun mentaleko programen pisu erlatiboa OMZetan - 2019	56
6. eranskina. Profesionalak osasun mentaleko zentroyen arabera	57
7. eranskina. Tarteko Baliabideen jardueraren bilakaera	60
8. eranskina. Ospitale baliabideen jardueraren bilakaera	61
9. eranskina. Baliabide soziosanitarioen deskripzioa	62
10. eranskina. GMLen arretarako baliabide sozial eta soziosanitarioetako gastua	64
11. eranskina. GMLen arretarako ballabide sozial eta soziosanitarioetako plazak	66
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	67
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA	69





I. Sarrera

Nafarroako Kontuen Ganberak bere urteko fiskalizazio programan sartu zuen auditoretza-txostena egitea Osasun Mentaleko Programari buruz.

Txostenak lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarreanean, Nafarroako osasun mentalaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarreanean, egindako lanaren helburuak eta irismena azaltzen dira; eta laugarren eta azkenak konklusio eta gomendio nagusiak jasotzen ditu.

Eranskinak 11 dira, eta eduki hauek biltzen dituzte: Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren organigrama, aplikatu beharreko arau-esparrua, Espainian psikosian goiz esku hartzeko programei (hemendik aurrera, PGE programak) buruzko adierazleak, osasun mentaleko laguntza-baliabideetako jardueraren eta profesionalen 2014-2019 bitarteko bilakaera, osasun mentaleko programen pisu erlatiboa, baliabide soziosanitarioen deskribapena, eta gaixotasun mental larri-etarako (hemendik aurrera, GML) baliabide soziosanitarioetako plazen eta aurrekontu-gastuaren 2014-2019 bitarteko bilakaera.

Lan hori 2019ko urritik 2020ko maiatza bitartean egin zuen auditoretzako lantalde batek (bi teknikarik eta auditore batek osatua), Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Lan hau egiteko emandako laguntza eskertzen diegu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (hemendik aurrera, O-NOZ) langileei, batez ere Osasun Mentaleko Kudeatzailetzako langileei, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziakoei (hemendik aurrera, PAGNA), Nafarroako Enplegu Zerbitzukoiei (hemendik aurrera, NEZ) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutukoiei (hemendik aurrera, NOPLOI).

Horrez gain, Nafarroako Buru Osasunerako Elkarteak (ANASAPS) eskainitako lankidetzak eskertzen dugu.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, lan honen emaitzak Osasuneko eta Eskubide Sozialetako kontseilariei eta O-NOZeko, PAGNAko eta NEZeko kudeatzaileei jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zituzten.

Ezarritako epea amaiturik, Eskubide Sozialetako kontseilariak eta PAGNAko zuzendari kudeatzaileak alegazioak aurkeztu dituzte.





II. Osasun mentala

II.1. Sarrera

Osasun mentala osasunaren eta ongizatearen osagai da; hala islatzen du Osasunaren Mundu Erakundearen Konstituzioan jasotako osasunaren definizioak: «*Osasuna ongizate fisiko, mental eta sozial beteko egoera da, eta ez bakarrik gaitz edo eritasunik ez izatea*».

Osasun mentalean, osasunaren beste alderdi batzuetan bezala, hainbat faktore sozioekonomikok eragin dezakete, eta faktore horiei ekiteko sustapen-, prebentzio-, tratamendu- eta suspertze-estrategia integralak erabili behar dira.

Horregatik, Osasunaren Mundu Batzarrak 2013-2020 aldirako onetsitako Osasun Mentalaren arloko Ekintza Integraleko Planak, plan nazionalerako orientabideak ematen dituenak, honako hauek ditu helburu orokorrak: osasun mentala sustatzea, nahasmendu mentalei aurrea hartzea, nahasmendu mentalak dituzten pertsonen laguntzea, suspertze bidea hobetzea, giza eskubideak sustatzea eta hilkortasuna, morbiditatea eta desgaitasuna gutxitzea.

OMEren arabera, Espainiako ehun biztanletik bederatzik osasun mentaleko arazoren bat dute eta ehuneko 25ek bizitzan zehar izanen dute.

II.2. Osasun mentala Nafarroan

II.2.1. Nafarroako Osasun Mentalaren Sarea

Nafarroan, osasun mentaleko arretaren arduraduna Nafarroako Osasun Mentalaren Sarea da (hemendik aurrera, NOMS).

Arlo anitzeko zerbitzu publikoen sare integrala da Nafarroako Osasun Mentalaren Sarea, O-NOZen mendekoa, eta haren egitekoak dira osasun mentala sustatzea, nahasmendu mentalei eta lotutako desgaitasunari aurrea hartzea eta Nafarroako biztanleei osasun mentalaren arloan kalitateko osasun laguntza espezializatua ematea. Gainera, graduatu aurreko eta ondoko irakaskuntzan, etengabeko prestakuntzan eta ikerketan laguntzen du bere espezialitatearen eremuan.

Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeak eta irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuak O-NOZeko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa eta eginkizunak ezartzen dituzte. Hala, kudeaketa organo zentral gisara eraturita dago, eta bere gain hartzen du osasun mentaleko programa eta jarduketan erantzukizun tekniko gorena Nafarroako Osasun Eskualdean.

Organigrama

Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren¹ egitura txosten honen 1. eranskinean ageri da.

¹ O-NOZen estatutuak onesten dituen irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuaren hitzaurreak hau dio: “*Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza, Ospitaleguneko Zuzendaritza eta Osasun Mentaleko Zuzendaritza egiazko kudeatzailetza asistentzialak izanen dira hemendik aurrera, organo periferikoen izaerarekin. Goi-zuzendaritzako arau eta irizpide teknikoekin lan egingen dute, esparru edo arlo asistentzial bateko zerbitzu asistentzialen kudeaketaz arduratuko dira, eta, horretarako, kudeaketa ekonomikoaren eta langileen arloko eskumenak berreskuratuko dituzte*”.






II.2.2. Laguntza-baliabideak

Nahasmendu mentala duten pertsonentzako osasun arreta biztanleen gainerako osasun arazoena bezala gauzatzen du O-NOZek, lanean jarritz oinarritzko osasun laguntzako sarea, laguntza espezializatuarena eta larrialdi-zerbitzuak.

Osasun eskualde oinarritzkoek (hemendik aurrera, OEO), hiru osasun barrutitan (Iruña, Tuter eta Lizarra) integraturik, oinarritzko osasun laguntzaren esparru geografikoa eta biztanleria-eremua osatzen dute, eta oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuak jaso ahal izatea bermatzen diete herritarrei. Badira 54 OEO, eta osasun mentaleko hamar sektoretan banatuta daude. Sektore horietako bakoitzak erreferentziako osasun mentaleko zentro (hemendik aurrera, OMZ) bat dauka. OMZ horietan dago nahasmendu mentalak dituzten pertsonentzako lehen laguntza maila.

Bigarren maila, berriz, osasun mentaleko gainerako zerbitzuek osatzen dute: ospitalekoek, tartekoek eta egoitzakoek. Hona hemen organikoki edota funtzionalki Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren mende dauden zentrozen diagrama:



Iturria: Osasun Mentaleko Plana 2019-2023

OMZ: osasun mentaleko zentroak: jarduera ambulatorioa.
HGOMZ: Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroa.
LGP: Lehen Gertakari Psikotikoen Programa.
OPU: Ospitalizazio Psikiatrikoko Unitatea.
OPU: Haur eta Gazteen Ospitalizazio Psikiatrikoko Unitatea.
EO: Helduentzako eguneko ospitaleak.
AN-EO: Adikzio Nahasmenduetarako Eguneko Ospitalea.
HG-EO: Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea.
PG-EO: Eguneko Ospitale Psikiatrikoa.

EEU: Egonaldi Ertaineko Unitatea.
ELU: Egonaldi Luzeko Unitatea.
EU: Errehabilitazio Unitatea.
KT: adikzio nahasmenduetarako komunitate terapeutikoak.
GMEL: gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza laguntzaduna.
EG: egoitza psikogeriatrikoak.
(Zenbakiak adierazten dute mota bakoitzeko zenbat zentro dauden)





II.2.3. Baliabide sozialak eta soziosanitarioak

Laguntza-baliabideez gain, gaixotasun mental larria (hemendik aurrera, GML) duten pertsonentzako arreta integralak baliabide sozial eta soziosanitario espezializatuak behar ditu, pertsona horiek komunitatean bizi ahal izan daitezen.

Nafarroan, mendekotasuna duten pertsonentzako arreta arautzen dute abenduaren 14ko 39/2006 Foru Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, eta ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duenak. Zorro horrek mendekotasun eta desgaitasun mailaren arabera jaso daitezkeen zerbitzuen eta laguntza ekonomikoen katalogoa biltzen du; zortzi arlotan banatuta dago, eta horietako bat gaixotasun mentala da.

Hona hemen PAGNAk kudeatutako zerbitzuak, nahasmendu mental larriak dituzten pertsonen dagozkienak, eta NEZek kudeatutako zerbitzuak, gaixotasun mentala dela eta desgaitasuna duten pertsonen laneratzea sustatzen dutenak:



Iturria: Osasun Mentaleko Plana 2019-2023

- EZ: eguneko zentroaren zerbitzua errehabilitazio psikosozialeko zentroetan.
- EZB: Enplegu Zentro Berezia.
- ZO: Zentro Okupazionala.
- EPSZ: Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa.
- Esku-hartze Soziokomunitarioko Lantaldea.
- PISUAK: zaintzapekoak, gainbegiratuak eta etxebizitza laguntzaduna.
- EPSP: Errehabilitazio Psikosozialeko Zerbitzua.
- GMEL: Gaixotasun Mentala duten Pertsonentzako Egoitza Laguntzaduna.
- ETXE-EG: etxe-egoitzak.

II.3. Osasun mentaleko aurrekontu-gastua

Osagai hauek ditu osasun mentaleko aurrekontu-gastuak:

a) O-NOZen gastua, zeinak barnean hartzen baititu 541 Osasun Mentala aurrekontu-programa, Osasun Mentaleko Kudeatzailetzak kudeatua, eta Tuterako eta Lizarrako





osasan barrutien eta Nafarroako Ospitalegunearen gastua, ematen dituzten osasun mentaleko zerbitzuek sortua; Lizarrako Osasun Barrutiak Lizarrako OMZ finantzatu du; Tuterako Osasun Barrutiak, Tuterako OMZ, Reina Sofia Ospitaleko Egunko Ospitalea (hemendik aurrera, EO) eta Ospitalizazio Psikiatrikoko Unitatea (hemendik aurrera, OPU); Nafarroako Ospitalegunek bere gain hartzen du bi OPUen gastua eta Hartutako Kalte Zerebralerako Neuropsikologia eta Neuropsikiatria Unitatearena.

b) PAGNaren gastuak barnean hartzen ditu nahasmendu mental larria (hemendik aurrera, NML) duten pertsonak artatzeko aurrekontu-partidak eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazional (hemendik aurrera, ZO) bat kudeatzeko hitzarmenaren kostua.

c) NEZen gastuak enplegu zentro berezientzako (hemendik aurrera, EZB) dirulaguntzak biltzen ditu, gaixotasun mentalaren ondorioz desgaitasuna duten pertsonen laneratzea sustatzea helburu.

Honako hau izan da osasun mentaleko aurrekontu-gastuaren bilakaera 2014-2019 aldian:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Osasun Mentaleko Kudeatzailletza	26.927.227	30.391.494	30.832.594	33.110.725	30.692.140	34.293.565
Tuterako Osasun Barrutia	1.880.598	1.939.120	2.081.453	2.384.727	2.654.572	2.823.539
Lizarrako Osasun Barrutia	766.365	708.232	913.089	950.015	879.734	2.167.910
Nafarroako Ospitalegunea	5.849.817	6.039.464	6.215.888	6.572.408	5.542.672	6.133.036
O-NOZ, GUZTIRA	35.424.007	39.078.310	40.043.024	43.017.875	39.769.118	45.418.050
NMLak dituzten eriak artatzeko zentroen eta laguntzen kudeaketa	6.814.197	7.177.867	7.518.310	7.418.228	8.786.291	9.858.305
ZOak kudeatzeko hitzarmena	1.420.548	1.734.200	1.734.200	1.734.200	1.734.200	1.806.200
PAGNA, guztira	8.234.645	8.912.067	9.252.510	9.152.428	10.520.491	11.664.505
EZBentzako dirulaguntzak	435.514	579.362	658.754	748.179	694.443	850.198
NEZ, guztira	435.514	579.362	658.754	748.179	694.443	850.198
Osasun mentala, guztira	44.094.166	48.569.739	49.954.288	52.918.482	50.984.052	57.932.753

Gastu osoa 57,93 milioikoa izan da 2019an; ehuneko 31 igo da 2014tik eta ehuneko 14 hazi da 2018tik.

- Osasun mentaleko gastuaren ehuneko 78 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokio, eta gastu horretatik ehuneko 76 jasotzen du Osasun Mentaleko Kudeatzailtzaren 541. aurrekontu-programak.





• Tuterako eta Lizarrako osasun barrutiek eta Nafarroako Ospitaleguneak zehaztu gabe dituzte gaixotasun mentala duten pertsonen beren zerbitzuetan laguntza emateko gastuaren aurrekontu-partidak. Horregatik, ezin dugu SAP-GE21etik abiatuta zehaztu zerbitzu horiek eragiten dituzten gastuak; hala ere, Tuterako eta Lizarrako osasun barrutiek zein Nafarroako Ospitaleguneak informazioa eman digute osasun mentalean aztertutako aldian egin duten gastuari buruz.

II.4. Osasun Mentaleko langileak

Hona hemen 2014-2019 aldiko langile-gastuen bilakaera:

Langile-gastuak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/18
Osasun Mentaleko Kudeatzailletza	16.088.805	15.881.600	15.939.149	16.472.537	18.038.200	21.941.778	22
<i>Tuterako Barrutia</i>	1.868.902	1.906.673	1.903.402	2.041.056	2.247.681	2.356.134	5
<i>Lizarrako Barrutia</i>	611.824	601.745	692.552	625.884	536.487	562.974	5
NO	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri	5.542.672	6.133.036	11
GUZTIRA	18.569.531	18.390.018	18.535.103	19.139.477	26.365.040	30.993.922	18

Langile-gastuak 31 milioi dira, osasun mentaleko gastuaren % 54. Ehuneko 18 igo dira 2018koekikin alderatuta.

Plantilla organikoa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako (aurrerantzean, NFKA) plantilla organikoetako osasun mentaleko unitateetan agertzen diren langileen lanpostuak eta horien sailkapena, bete gabekoetan eta lanpostu hutsetan banatuta baitaude, honako hauek dira:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Betetako lanpostuak	358	337	321	323	314	337
Lanpostu hutsak	178	198	214	212	233	265
Deitutako lanpostuak	536	535	535	535	547	602
<i>Lanpostu hutsek guztizkoan egiten duten ehunekoa</i>	33	37	40	40	43	44
Betetako lanpostu hutsak	121	133	152	142	179	217
<i>Betetako lanpostu hutsek guztizkoan egiten duten ehunekoa</i>	68	67	71	67	77	82

Lanpostuek gora egin dute, batez ere, osasun mentaleko zerbitzu berrietan lanpostuak sartu direlako eta lan-arloko jurisdikzioaren epaiak bete direlako; epai horien arabera, langile mugagabe ez finkoen izaera aitortzen zaie dira Burlatako OMZko, Nafarroako Ospitaleguneako eguneko zentroko eta Adikzio Nahasmenduetarako Zuria eguneko zentroko 26 langileri. Azken horien kudeaketa hitzartuta zegoen, eta administrazioak zuzenean kudeatzen du.





Lanpostu hutsek lanpostuen guztizkoan egiten duen portzentajeak gora egin du 2014tik, 2019an lanpostuen ehuneko 44ra iritsi arte; horietatik ehuneko 82 aldi baterako beteta zeuden.

Langileak, abenduaren 31n

Honako hauek dira abenduaren 31ko benetako langileak, finkoak eta aldi baterakoak bereizita:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Egiazko langileak	572	574	580	590	662	717
Langile finkoak	358	337	321	323	314	337
Aldi baterako langileak	214	237	259	267	348	380
Aldi baterako langileek benetako langileen guztizkoan (%)	37	41	45	45	53	53

Ikusten denez, behin-behinekotasun adierazlea nabarmen handitu da aztertutako aldian, eta 2014an ehuneko 37 izatetik 2019an ehuneko 53 izatera pasatu dira.

Aldi baterako langileen artean sartzen dira egiturazko plazak betetzeko kontratatutakoak eta prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarak, zeinek, hurrengo taulan ikusten denez, gora egin baitute 2014-2019 urteetan:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Egiturazko lanpostuak	10	12	19	29	85	86
Prestakuntzan dauden egoiliarak	26	27	26	26	30	29

Egiturazko lanpostuak gehitu dira zerbitzu berriak sortu direlako, OMZko taldeak indartu direlako eta Osasun Mentalean espezializatutako erizaintza-figura sartu delako Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean.

Azken batean, lanpostu hutsen kopurua handitu egin da, eta egiturazko beharrak eta premia iraunkorrak aldi baterako langileekin betetzen dira; horrek eragin du behin-behinekotasuna handitzea, benetako langile guztien ehuneko 53ra iritsi arte.

Ganbera honek Nafarroako Kontu Orokorreari buruz egindako 2017ko eta 2018ko fiskalizazio-txostenetan, gomendatzen zen, NFKAko langileei dagokienez, beharrezko neurriak lehenbailehen hartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna murrizteko. Gomendio horrek indarrean jarraitzen du Osasun Mentaleko langileentzat.





III. Helburuak eta norainokoa

Lan honen helburua da aztertzea nola kudeatzen diren Nafarroako Foru Komunitatean (NFK, aurrerantzean) osasun mentalaren sustapenera, nahasmendu mentalen prebentziora eta nahasmendu mentala duten pertsonen arretara bideratutako baliabideak. Horretarako, honako helburu hauek zehaztu ditugu, galderei dagokienez:

1. helburua: Eraginkorrak al dira NFKn osasun mentala sustatzeko eta prebentzeko egindako jarduerak?

2. helburua: Nahikoak eta eskuragarriak al dira nahasmendu mentala duten pertsonen arreta emateko NFKn dauden baliabideak?

Helburu horiek hainbat azpigelburutan banakatu dira, eta horietako bakoitzerako ikuskapen-irizpide egokienak definitu ditugu, horiek betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko.

Hauexek dira auditoria-helburu eta -irizpideak bakoitzarentzat:

1. helburua. Eraginkorrak al dira osasun mentalaren sustapenean eta nahasmendu mentalen prebentzioan NFKn egindako jarduerak?

Azpigelburuak	Irizpideak
1.1 Egin al da estigma soziala sustatzeko, prebentzeko eta desagerrarazteko jarduerarik?	Sustapen- eta prebentzio-jarduerak biztanleria osoan eta arrisku-taldeetan.
	Nahasmendu mentala duten pertsonen integrazioa eta estigma desagerraraztea sustatzen duten jarduerak.
	Arrisku taldeetan esku hartzeko programak: neurri judizialak dituzten adingabeak, espetxea, lruñeko udal aterpetxea eta adinekoentzako zentroak.
	Sustapenera eta prebentziora bideratutako aurrekontua.
1.2 Garatu al da jokabide suizidak prebentzeko eta horien aurrean jarduteko protokolorik?	Jokabide suizidak prebentzeko eta artatzeko protokoloak.
	Suizidioaren eta nor bere buruari eragindako lesioen ondoriozko heriotza-tasa estandarizatua 100.000 biztanleko. OMEren 2020rako helburua: suizidio-tasa % 10 murriztea herrialdeetan.
	Ospitaleko larrialdietan artatutako saiakera autolitikoak.
	Jokabide suiziden prebentziorako dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainen kopurua.
1.3 Eraginkorra al da Lehen Gertakari Psikotikoen Goiz Esku Hartzeko Programa?	Giza baliabideak psikosian goiz esku hartzeko programetan.
	Eragina: Programan urtean artatu diren kasu berrien kopurua. Lehen kontakturako itxaronaldia.
	Uzteen proportzioa: Programa uzten duten pertsonen kopurua x 100/programako urtebeteko pazienteak.
	Tratatu gabeko psikosiaren batez besteko iraupena (DUP), hilabetetan.
	Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitateko ospitaleratzeak Larrialdietarako bisiten kopurua.





2. helburua: Nahikoak egokiak eta eskuragarriak al dira nahasmendu mentala duten pertsonen arreta emateko NFKn dauden baliabideak?

Azpihelburuak		Auditoretzako irizpideak
2.1 Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean erabilitako laguntza-baliabideak nahikoak eta egokiak dira?	Baliabide komunitarioak	Baliabide komunitarioetako jarduera
		Jardueraren adierazleak: prebalentzia, intzidentzia eta maiztasuna
		Profesionalen ratioak, herriaren arabera
	Bitarteko baliabideak eta ospitaleak	Jarduera, bitarteko baliabideak eta ospitaleak
		Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuetako plazak Ratioak/plazak x 100.000 bizt.
	Azpiegiturak	Azpiegituretan egindako inbertsioak
Inbertsioetako gastuaren bilakaera		
2.2 Nahikoak eta egokiak al dira Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean erabilitako baliabide sozialak eta soziosanitarioak?	Gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabide sozialak eta soziosanitarioak. Plaza erabilgarriak. Ratioak 100.000 biztanleko. Itxaron zerrenda. Plazen eta gastuaren bilakaera.	
	Laneratzea sustatzeko zerbitzuak: ZOak eta EZBak. Plazen kopurua. Plazen eta gastuaren bilakaera.	
2.3. Hobetu al da sistemaren eskuragarritasuna?	Osasun mentaleko arreta espezializaturako itxaron zerrendetako paziente kopuruaren murrizketa. Itxarote-zerrendaren murrizketa eta itxarote-denbora (%)	
	Bermeei buruzko legearen barruan erantzundako lehen kontsultak (%)	
	Nahasmendu mental larrietarako zerbitzuen estaldura OMEren 2020ko xedea: % 20ko igoera Zerbitzuak erabiltzen ari diren nahasmendu mental larriak dituzten pertsonen proportzioa (%)	
	Tratatu gabeko nahasmendu psikotikoaren iraupena, hilabetetan	

Lanaren norainokoak honako hauek hartzen ditu: osasun mentala sustatzeko funts publikoak kudeatzea, nahasmendu mentalak prebenitzea eta nahasmendu mentalak dituzten pertsonen arreta ematea.

Lanaren denbora-norainokoa 2014-2019 aldiari dagokio. Adierazi behar dugu hasiera batean lanaren denbora-irismena 2018ra artekoa zela, baina COVID-19ak 2020ko martxoan sortutako egoera ikusita, 2019ra luzatu zen.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- 2016-2019 aldiko Nafarroako aurrekontu orokorrak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.
- 2012-2016 eta 2019-2023 aldietako osasun mentaleko plan estrategikoak.
- 2012-2016 aldiko osasun mentaleko plan estrategikoaren ebaluazioa





- 2014tik 2019ra bitarteko osasun mentaleko oroitidazkiak.
- 2013-2020 aldiko Osasunaren Mundu Erakundearen Osasun Mentalari buruzko Ekintza Plana.
- Goiz Esku-hartzeari buruzko Espainiako Liburu Zuria.
- Lehen Gertakari Psikotikoetan (LGP) goiz esku hartzeari buruzko ikerketak, gidak eta azterlanak.
- Espainiako Neuropsikiatria Agentziaren (aurrerantzean, ENE) kalitate asistentzialeko irizpideak ebaluaziorako eta plangintza asistentzialerako. OMZetako profesionalen baliabideak eta NMLa duten pazienteei arreta emateko tresnak Espainian.
- Gizarte Zerbitzuen Departamentuko Gizarte Errealitatearen Behatokiaren datuak.
- Osasun Mentalean aplikatu beharreko araudia.





IV. Konklusioak eta gomendioak

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

O-NOZeko Osasun Mentaleko Zuzendaritza arduratzen da Nafarroako osasun-eskualdean osasun mentaleko programak eta jarduerak kudeatzeaz.

PAGNA arduratzen da NFKren esparruan NMLa duten pertsonentzako baliabide sozial eta soziosanitarioak kudeatzeaz.

NEZ arduratzen da gaixotasun mentalaren ondoriozko desgaitasuna duten pertsonen laneratzea sustatzera bideratutako zerbitzuak kudeatzeaz.

Aipatutako antolaketa-unitateek bermatu behar dute egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak aplikatzekoak diren arauekin bat datozela, eta beharrezko mekanismoak ezarri behar dituzte proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezzen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezzen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarriz.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak adieraztea, NFKn osasun mentala sustatzera, buru-nahasmenduak prebenitzera eta buru-nahasmenduak dituzten pertsonen arreta ematera bideratutako baliabideen kudeaketari dagokionez.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboei buruzko ISSAI-ES 300 delakoa aplikatu dugu, bai eta ISSAI-ES 3000n eta 3100ean jasotako jarraibideak ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarritutako dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du lortutako konklusioei funtsa emateko.





IV.1. Osasun mentalaren sustapena eta prebentzioa

1. helburua: Eraginkorrak al dira NFKn osasun mentala sustatzeko eta prebenitzeko egindako jarduerak?

IV.1.1. Sustapeneko eta gaixotasunei aurea hartzeko ekintzak

Azpihelburuak	Auditoretzako irizpideak
1.1 Egin al da estigma soziala sustatzeko, prebenitzeko eta desagerrarazteko jarduerarik?	Sustapen- eta prebentzio-jarduerak biztanleria eta arrisku-taldeetan.
	Gizarteratzea sustatzeko eta estigma desagerrarazteko jarduerak.
	Arrisku taldeetan esku hartzeko programak: neurri judizialak betetzen edo espetxean, Iruñeko udal aterpetxean eta adinekoentzako zentroetan dauden adingabeak.
	Sustapenera eta prebentziora bideratutako aurrekontua.

Osasun Mentaleko 2014-2019 aldiko aurrekontu-programen eta Osasun Mentaleko 2012-2016 eta 2019-2023 aldietako plan estrategikoen helburuen artean daude osasun mentalaren sustapena, nahasmendu mentalen prebentzioa eta estigma desagerraraztea.

- Sustapen- eta prebentzio-jarduerak OMZetako kudeaketa-itunetan erregistratutako ekintzak dira, eta beste OMZ batzuekin, elkarteekin, instituzioekin, komunikabideekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan antolatuta daude. Egindako jardueren artean, bigarren hezkuntzako institutuetan osasun mentala sustatzeko eta estigma prebenitzeko Burlatako OMZk antolatutako "Eta nor ez" programa nabarmentzen da. Estigmaren aurka borrokatzeko Euren "Hesiak apurtzen" programa ere badago, kaltetutako pertsonen errealitatera hurbiltzea eta haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzen lagunduko duten jarrera-aldaketa sustatzea helburu duena.

- Arrisku-taldeetan nahasmendu mentalak prebenitzeko, hainbat OMZk antolatutako esku-hartze programak egiten dira zentro soziosanitarioetan, Félix Garrido egoitzan, espetxean, adingabeen zentroan, Vergel egoitzan eta abarretan. 2017an, Lehen Gertakari Psikotikoetan Goiz Esku-hartzeko Programa ezarri zen.

- Era berean, nahasmendu mentalak dituzten pertsonen estigma eta diskriminazioa desagerrarazteko, Birgaitze Programak haien gizarteratzea, laneratzea eta integrazio akademikoa sustatzen duten programak bultzatzen ditu; hala nola, banakako errekupe-ratio-panak eta enplegu- eta jarduera-programak, esku-hartze sozialekoak, aisialdi-koak eta denbora librekoak zein gizarte-trebetasunetakoak.





• Osasun mentaleko zerbitzuek sustapen- eta prebentzio-jarduerak egiteko finantza-baliabideak badaude ere, Nafarroako aurrekontu orokorretan ez dago berariazko partidarik osasun mentala sustatzeko eta nahasmendu mentalak prebenitzeko.

Azken batean, egindako jarduerak osasun mentala sustatzeko eta prebenitzeko eta estigma desagerrarazteko jarduera finkatuei dagozkie, hainbat erakunderekin lankidetzan OMZ batzuek garatu dituztenei. Talde espezifikoei buruzko esku-hartze programak egiten badira ere, gainerako programen hartzaile den biztanleria txikia da, eta ez dago osasun mentala sustatzeko eta prebenitzeko planik, ez eta osasun mentaleko zerbitzuen arteko benetako koordinaziorik ere, ezarritako ekintzak gauzatzean.

IV.1.2. *Jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloak*

Azpihelburuak	Auditoretzako irizpideak
1.2 Garatu al da jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokolorik?	Jokabide suizidak prebenitzeko eta artatzeko protokoloak.
	Suizidioaren eta nor bere buruari eragindako lesioen ondoriozko heriotza-tasa estandarizatu 100.000 biztanleko. OMEren 2020rako helburua: suizidio-tasa ehuneko hamar murriztea herrialdeetan.
	Ospitaleko larrialdietan artatutako saiakera autolitikoak.
	Jokabide suiziden prebentziorako dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainen kopurua.

2014an, jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa egin zen; protokolo horren helburua zen Nafarroako biztanleen heriotza-tasa murriztea eta jokabide suizidei ematen zaien erantzuna hobetzea, baliabide guztien prebentzioaren, esku-hartzearen, jarraipenaren eta koordinazioaren bidez.

2014an ere, uztailaren 2ko gobernu-akordioaren bidez, Jokabide Suiziden Prebentzio eta Arretarako Erakunde arteko Koordinazio Batzordea sortu zen. Batzorde horren eginkizunen artean dago jokabide suizidak prebenitzeko eta horietan jarduteko ekintzak proposatzea, bai eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitea ere: betetze-, emaitza- eta inpaktu-adierazleak ezartzea, erregistro-sistemen hobekuntza sustatzea eta egindako ekintzen urteko txostena egitea.

Ez dago jasota urtero txostenik egin denik jokabide suiziden aurreko prebentzio- eta jarduketa-protokoloen esparruan egindako ekintzei buruz, ez eta horien exekuzio- eta inpaktu-adierazleen ebaluaziorik ere.

Adierazi behar dugu suizidioa prebenitzeko protokolo klinikoak egin direla OPU, EO, LGP, EEU eta ELUn, eta prestakuntza-ekintzak egin direla hainbat kolektiboren-tzat, oinarrizko osasun laguntzan, osasun mentalean, hezkuntzan eta Foruzaingoan.





Suizidioen ondoriozko heriotza-tasa estandarizatua

OMEk suizidioa osasun publikoko lehentasunetako bat dela aitortu du, eta Europar Batasunaren ustez, lehentasunezko erantzuna eman behar zaion arazoa da.

OMEren arabera, suizidio tasak gora egin du azken urteotan, eta 100.000 biztanleko 10,5 suizidiokoa izatera iritsi da. 2020rako helburua tasa hori ehuneko 10 murriztea da. Europan, tasa hori 15,4 suizidiokoa da 100.000 biztanleko, eta Espainia suizidio tasa txikiena duten herrialdeen artean dago.

Nafarroan, honako hau da 100.000 biztanleko suizidio-tasa eta Estatuarekiko eta beste autonomia-erkidego batzuekiko alderaketa:

	2014			2015			2016			2017			2018		
	G	E	Guz-tira	G	E	Guz-tira	G	E	Guz-tira	G	E	Guz-tira	G	E	Guz-tira
EGOERA	13	4	8	12	4	8	12	4	8	12	4	8	11	4	8
Andaluzia	15	4	9	13	4	8	13	3	8	12	4	8	12	3	8
EAE	12	6	8	12	4	8	12	4	8	13	4	8	11	4	7
Errioxa	17	3	10	13	3	8	12	6	9	13	3	8	10	3	7
Nafarroa	12	3	7	8	8	8	11	5	8	12	3	7	9	3	6
Madril	8	3	5	7	3	5	7	3	5	8	3	5	7	3	5
Kantabria	10	3	6	10	3	6	11	3	7	6	3	5	8	2	5

Bistan denez, suizidioen tasak behera egin du Nafarroan azken bi urteetan, eta 100.000 biztanleko sei suizidio izan dira 2018an. Alde handia dago, berriz, gizonen eta emakumeen suizidioen tasen artean, baina prebalentzia hori autonomia-erkidego guztietan ikusten da. Tasa hori OMEk adierazitako tasa globala baino nabarmen txikiagoa da, eta Estatuko batez besteko tasaren azpitik dago.

2017. urtearen amaieran, psikiatriako larrialdietan alta eman zaien pertsonen arreta emateko, saialdi autolitikoren bat egin izan eta horretarako baimena eman duten paziente helduen telefono-jarraipeneko programa ezarri zen. Paziente horiekin jarraipen hurbilagoa eta estuagoa eskaintzea du helburu, OMZetako arretarekin koordinatuta.

2019an 266 paziente artatu dira, eta nabarmentzekoa da programako pazienten guztien % 67 emakumeak direla.

Txosten hau idatzi den egunean, ez dago ospitaleko larrialdietan artatutako saiakera autolitikoen erregistrarik, eta, beraz, ezin dugu kalkulatu telefono bidezko jarraipen-programak pazienteen zer portzentajeri jarraitzen dion; erregistro hori 2019-2023ko Osasun Plan Estrategikoan ezarritako funtsezko adierazleetako bat da, eta hura ezartzeko lanean ari dira.





Zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpainak

Ez da zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpainarik egin jokabide suizidak prebenitzeko; Osasun Mentaleko Kudeatzailtzak hainbat sentsibilizazio-saio eta -ekitalditan parte hartzen du. Ongizate emozionalak, babes-faktoreek eta suizidio-arriskuak osasun-arazo gisa duten garrantziari buruzko kanpainak egitea da Osasun Mentaleko 2019-2023 aldirako Plan Estrategikoaren helburua.

Azken batean, 2014an, jokabide suizidak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa egin zen, eta Koordinaziorako Erakunde arteko Batzordea sortu zen; halere, ez dago jasota protokolo horren esparruan egindako ekintzei buruzko urteko txostenik egin izana. Nafarroan, 100.000 biztanleko sei suizidio tasa jaitsi egin da aztertutako aldian. Saiakuntza autolitikoen erregistroa eta jokabide suiziden prebentziorako zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea 2019-2023 aldirako Osasun Mentaleko Plan Estrategikoaren helburuak dira.

IV.1.3. Lehen Gertakari Psikotikoak

Azpihelburuak	Auditoretzako irizpideak
1.3 Eraginkorra al da Lehen Gertakari Psikotikoen Goiz Esku Hartzeko Programa?	Giza baliabideak psikosian goiz esku hartzeko programetan.
	Eragina: Programan urtean artatu diren kasu berrien kopurua. Lehen kontakturako itxaronaldia.
	Uzteen proportzioa: Programa uzten duten pertsonen kopurua x 100/programako urtebeteko pazienteak.
	Tratatu gabeko psikosiaren batez besteko iraupena (DUP), hilabetetan.
	Hobera egitearen ondoriozko alden kopurua. Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitateko ospitaleratzeak Larrialdietarako bisiten kopurua.

Lehen Gertakari Psikotikoen (LGP) programa pixkanaka ezarri da Nafarroan 2017 eta 2019 bitartean. Psikosi ez-afektiboak (larrienak) artatzen ditu, NFKren lurralde-eremuan, 15 eta 50 urte bitarteko pertsonen kasuan (65 urtera luza daiteke adina), eta bi urteko iraupena du paziente bakoitzarekin. Helburua da lehen gertaera psikotikoa izan duten pertsonak garaiz ebaluatzea eta tratatzea, bi aste baino lehen arreta jarritz, psikosia duen pertsonaren errekupeazioa eta jarraipena errazteko eta haren laneko desgaitasuna prebenitzeko, bizitza normalizatua izan dezan eta bere helburu eta xede pertsonalak lor ditzan.





2019ko abenduan, programan diziplina anitzeko talde batek jarduten zuen, hamaika profesionalen osatua: bi psikiatriakoak, hiru psikologia klinikokoak, bi osasun mentalean espezializatutako erizaintzakoak, bi terapeuta okupazionalak, gizarte-langile bat eta administrari bat. Paziente hauek artatu dituzte:

Urtea	2016	2017	2018	2019	Guztira
Paziente berriak/urtea	1	53	83	94	231

Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak 14 eta 35 urte bitarteko pertsonak hartzen ditu psikosian goiz esku hartzeko (PGE) programen xedeko biztanleriatzat; izan ere, intzidentzia da, gutxi gorabehera, gizonen ehuneko 68k eta emakumeen ehuneko 51k 35 urte bete baino lehen hartzen dutela gaixotasuna.

Hala ere, autonomia-erkidegoetako psikosian goiz esku hartzeko (PGE) programa gehienek, Nafarroakoak barne, nazioartean gomendatutakoak baino adin-tarte handiagoa hartzen dute. Honako hau da Nafarroako LGPn artatutako pertsonen adina:

Tartea	Paziente kopurua	Guzt. g/ %	Guzt. g/ %
14-19	43	19	67
20-35	112	48	
36-50	65	28	30
51-56	5	2	
EZ DAGO ES-KURAGARRI	6	3	3
Guztira	231		

Ikusten dugu, hain zuzen ere, adin-tarte nagusia 14-35 urtekoa dela, pazienteen ehuneko 67 hartzen baitu; hala ere, artatutako 36 eta 50 urte bitarteko pertsonen —programak ezarritako muga da hori— ere portzentaje handi bat egiten dutela, esku-hartze guztien ehuneko 28 baitira.

Adierazleak

Jarraian, NFK-ko LGP programari buruzko adierazle batzuk aztertuko ditugu, 2017-2019 aldian izan duen bilakaera aztertuz eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoetan ezarritako PGE programetako adierazleen datuekin alderatuz²:

- Giza baliabideak psikosian goiz esku hartzeko programetan

² Psikosian goiz esku hartzeari buruzko Espainiako liburu zuria. [http://www.sepsiq.org/file/Enlaces/Libro%20blanco%20de%20la%20Intervenci%C3%B3n%20Temprana%20en%20Espana%20C3%B1a%20\(2018\).pdf](http://www.sepsiq.org/file/Enlaces/Libro%20blanco%20de%20la%20Intervenci%C3%B3n%20Temprana%20en%20Espana%20C3%B1a%20(2018).pdf)





PGE programak dituzten autonomia-erkidegoetan³, 100.000 biztanleko profesionalen ratioak (lanaldi osoko baliokidetasunean) honako hauek dira, programa horietarako sarbidea duten biztanleen arabera kalkulatuta:

Nafarroako Foru Komunitatea	Psikiatria	Psikologia klinikoa	Erizaintza	Gizarte langileak	Besterik
Kantabria	1,03	0,34	0,34	0,17	0,17
Katalunia	1	1	0,66	0,66	0,66
NFK	0,49	0,73	0,49	0,24	0,24
EAE	0,32	0,23	0,23	0,23	0,09
Valentziako Erkidegoa	0,22	0,12	0,16	0,06	0,12
Gaztela-Mantxa	0,1	0,1	0,05	0,05	0
Andaluzia	0,1	0,07	0,12	0,01	0,01
Asturiasko Printzerria	0,1	0	0,19	0,1	0
Balear Uharteak	0,09	0,09	0,09	0	0
Madrilgo Erkidegoa	0,08	0,06	0,05	0,02	0,04
Profesionalen ratioa, batez beste	0,34	0,22	0,21	0,14	0,12

NFK hirugarren postuan dago LGP programan aritzen diren psikiatriako profesionalen dagokienez, eta bigarrenean, berriz, gainerako profesionalen dagokienez. Aipatu behar dugu Nafarroan programa NFK-ko lurralde osoan hedatuta dagoela, eta bertako biztanle guztiak hartzen dituela eraginpean, beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, non beren lurraldearen barruan populazio mugatuetara zuzendutako programak dauden, horrek profesional bakoitzeko kalkulaturako ratioa handitzea dela-eta dakarrenekin.

- Eragina: Programan urtean artatu diren kasu berrien kopurua.

PGE programen helburua da tratatutako intzidentzia benetako intzidentziara ahalik eta gehien hurbiltzea. Nafarroan urtean 110-130 psikosi kasu berri izanen direla aurreikusi da, 24-32 kasu berri 100.000 biztanleko, osasun mentaleko profesionalen adierazi digutenez. LGP programan aztertutako intzidentziaren bilakaera, 2017-2019 al-dian, honako hau izan da:

	2017	2018	2019
Erreferentziako populazioa	405.107	406.762	410.925
Kasu berriak/urtea	54	83	94
Intzidentzia x 100.000 biztanle bakoitzeko	13	20	23

³ PGE programa bat edo batzuk zehaztuta dauzkaten autonomia erkidegoak: Andaluzia, Katalunia, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Valentziako Erkidegoa, Balear Uharteak, Madrilgo Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Asturiasko Printzerria.





Ikus dezakegunez, programan gora egiten du esku-hartzeen urteko kopuruak, eta 2019an tratatu berri diren 94 kasuren intzidentzia lortu da; hau da, 23 kasu berri 100.000 biztanleko. Programak goranzko joera izaten jarraitzen du, urtero psikosi-kasu berri gehiago detektatu eta tratatzeari dagokionez, eta tratatutako intzidentzia benetako intzidentziara hurbiltzeko ahalegina egiten da.

Beste programa batzuekin alderatuta, LGP programak Euskal Autonomia Erkidegoko programak baino intzidentzia txikiagoa du (33-37 kasu berri 100.000 biztanleko), eta gainerako autonomia-erkidegoetako programak baino intzidentzia handiagoa.

- Lehen kontakturako itxaronaldia: Deribazioaren dataren eta taldearekin lehen harremana izan den egunaren arteko batez besteko itxaronaldia (egunak).

Oro har, PGE programa guztiek gehieneko denbora ezartzen dute kasuaren deribazio-dataren eta taldearekin izandako lehen harremanaren artean, kasu horietan ahalik eta lasterren esku hartzeak duen garrantziagatik. Nafarroan, esku-hartzearen erantzuna azkarra eta irisgarria da, eta astebete baino gutxiago behar da interbentzioa hasteko, pazientea deribatu ondoren.

PGE programen batez besteko itxarote-denbora autonomia-erkidegoetan, oro har, egun bat, bi eta hiru egunekoa da, baina programaren batean astea gaintzen da.

- Uzteen proportzioa. Programa uzten duten pertsonen kopurua x 100/programako pazienteak.

2017-2019 aldian LGP programan artatutako paziente guztietatik, 16 pazienteek utzi dute programa, artatutako pazienteen ehuneko zazpik, eta horietatik 13k tratamenduko lehen urtea baino lehen utzi dute programa:

	2017	2018	2019
Kasuak guztira/urtea	50	115	175
Urte bakoitzeko uzteen kopurua	-	8	5
Uzteen portzentajea	0	7	3
Hobera egitearen ondoriozko alden kopurua urte bakoitzean	0	2	18
Hobera egitearen ondoriozko alden portzentajea	0	2	10

2019an izandako uzteen proportzioa ehuneko hiru izan zen Nafarroan, 2018. urtearekin alderatuta. PGE programetan uzteen ehunekoa oso desberdina da, % 1etik % 12ra bitartekoa.

Aitzitik, uzteen tasa murriztearekin batera, gora egin du hobekuntzagatiko alden ehunekoak: oinarritzko osasun laguntzako zentrorra edo OMZra bideratu dira alta horiek.

- Tratatu gabeko psikosiaren batez besteko iraupena (DUP) hilabetetan: Sintoma psikotikoak agertu eta tratamendu egokia hasi arteko aldia.





Nafarroan, DUP globala 18,71 hilabetekoa da; adierazle handi hori LGP programaren hasieran bilakaera luzea izan duten pazienteen erreskateari zor zaio; 2019an, 8,75 hilabetekoa da adierazlea. Hurrengo taulan ikus dezakegunez, DUPak desberdintasun handiak ditu beste PGE batzuetan:

Autonomia erkidegoak	NFK	Kantabria		Madrilgo Erkidegoa		Euskal Autonomia Erkidegoa		Valentziako Erkidegoa	Katalunia
Programa	LGP	PAFIP	P3	PIENSA	UAT	HIPATYA	CRUCEP	GANDIA	PAE-TPI
DUP	8,75	12,30	7,3	0	12	2	6,7	3	11,5

Jarraian, LGP programaren helburuak bete direla eta 2017-2019 aldian izan duen bilakaera islatzen duten bi adierazle aztertuko ditugu; horiei buruzko informazio konparatiborik ez dugu, ordea.

- OPUko ospitaleratzeak: OPUko ospitaleratzeen kopurua/ Programako pazienteen kopurua.

Programan jasotako datuen arabera, 231 pazienteek 37 ospitaleratze izan dituzte programak iraun duen bi urteetan; horietatik 33 tratamenduko lehen urteko ospitaleratzeei dagozkie, eta lau soilik bigarren urteko ospitaleratzei.

- Larrialdietarako bisiten kopurua: Larrialdietan PGE programetako pazienteei emandako arreta, tratamendua hasten dutenetik.

2017-2019 aldian, pazienteen % 93k ez du arretarik behar izan larrialdi-zerbitzuetan.

Azken batean, LGP programak 15 eta 65 urte bitarteko psikosi larria duten pertsonen ematen die arreta NFK-ko lurralde osoan; oro har, ENEk eta PGE programek psikosian esku-hartze goiztiarra ebaluatzeko eta emaitzen adierazleak hobetzeko egokitzat jotzen dituzten adierazle guztiak gainditzen ditu.

Programan lan egiten duten profesionalen kopuruari dagokionez, egokia dela ondoriozta dezakegu; izan ere, ez dago programan sartzeko itxarote-zerrendarik, eta ezarritako arreta-helburua astebete baino gutxiagoan betetzen da.

LGP programaren helburua esku-hartze goiztiarra eta intentsiboa dela uste badugu, eta une honetan programa horren DUPa handia bada, ahalegina egin behar da adierazle hori murrizteko.





IV.2. Nahasmendu mentala duten pertsonentzako laguntza

2. helburua: Nahikoak eta eskuragarriak al dira nahasmendu mentala duten pertsonen arreta emateko NFKn dauden baliabideak?

IV.2.1. Nafarroako Osasun Mentalaren Sareko laguntza-baliabideak

Azpihelburuak		Auditoretzako irizpideak
2.1 Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean erabilitako laguntza-baliabideak nahikoak eta egokiak dira?	Baliabide komunitarioak	Baliabide komunitarioetako jardura
		Jardueraren adierazleak: prebalentzia, intzidentzia eta maiztasuna
		Profesionalen ratioak, herriaren arabera
	Bitarteko baliabideak eta ospitaleak	Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuetako plazak Ratioak/ 100.000 biztanleko plazak
		Jardura, bitarteko baliabideak eta ospitaleak
	Azpiegiturak	Azpiegituretan egindako inbertsioak
Inbertsioetako gastuaren bilakaera		

Asistentziari dagokionez, Nafarroako osasun mentaleko baliabideen sarea bi mailatan egituratzen da: lehen maila baliabide komunitarioek eta OMZek osatzen dute, eta bigarren maila baliabide espezializatuek: tartekoak, ospitalekoak eta egoitzakoak.

A) Baliabide komunitarioak eta osasun mentaleko zentroak

OMZk osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arreta emateko komunitate-eremuko oinarrizko tresnak dira; diziplina anitzeko taldeek osatzen dituzte eta osasun-zerbitzuak eskaintzen dituzte erregimen ambulatorioan.

Hamar OMZ daude helduentzat, zortzi Iruñeko Osasun Barrutian, bat Tuterako Osasun Barrutian eta bat Lizarrako Osasun Barrutian; gainera, Haurren eta Gazteen OMZ bat badago Iruñerriko 17 urtetik beherako biztanleei arreta emateko; Tuteran eta Lizarran haur eta gazteen arretarako programak daude dagozkien osasun-eremuetan.

Gainera, zerbitzu komunitarioen barruan, hainbat programa bereizi biltzen dira, hala nola opiazeoekin mantentzea, egoera berezietan dauden kolektiboek laguntzeko jarduerak, LGP, Talde Terapiako Programa (TTP) eta suizidio-saiakera baten ondorengo jarraipen-programa.



**Baliabide komunitarioetako eta OMZetako jarduera**

2014-2019 aldian, honako kontsulta eta paziente hauek artatu dira guztira:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/18	Aldea (%) 19/14
Zentroak*	11	11	11	12	13	13	0	18
Artatutako pazienteak	23.499	23.722	23.544	23.988	25.552	26.706	5	14
Paziente berriak	10.220	9.664	9.938	9.734	11.131	11.306	2	11
Kontsultak, guztira	149.684	145.526	149.245	149.404	150.488	154.019	2	3
Lehen kontsultak	11.099	9.959	10.583	10.280	11.702	11.918	2	7
Lehenbizikoaz geroztiko kontsultak	138.585	135.567	138.662	139.124	138.786	142.101	2	3

* 2017an, LGP programa sartu da, eta 2018an, berriz, TTPa

2014-2019 aldian, handitu egin da artatutako pazienteen kopurua: 2019an, % 14 hazi zen 2014arekin alderatuta, eta % 5, 2018arekin alderatuta. Guztizko kontsultak ehuneko hiru igo dira, eta lehen kontsultak, berriz, ehuneko zazpi.

Jarduera, OMZen eta nahasmendu mentaleko programen arabera, txosten honen 4. eranskinean zehazten da. Laburbilduz, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Tuterako OMZ da urtero paziente gehien artatzen dituen (guztien % 14-15); paziente gutxien artatzen dituen, berriz, Tafallako OMZ da (% 7), biak ala biak artatzen dituzten biztanleen proportzio zuzenean.

2019an, Antsoingo eta Tuterako OMZk dira kontsulta gehien dituztenak, 15.685 eta 14.794, hurrenez hurren.

Oro har, paziente bakoitzeko batez besteko kontsulta-kopuruak behera egin du aztertutako aldian, OMZ batzuen eta besteen artean aldeak baitaude; hala, Buztin-txurin paziente bakoitzeko batez besteko kontsulta-kopurua zazpi da; Tuteran eta Tafallan, berriz, lau.

- OMZetan artatutako pazienteak osasun mentaleko zazpi programatan sailkatzen dira diagnostikoaren arabera: nahasmendu mental arrunta (NMA), nahasmendu mental larria (NML), adikzio-nahasmendua (AN), haur eta gazteak (HG), psikogieria (PSG), geroratua/sailkatu gabea eta tratamendu-programarik behar ez duena.

NMA NML programak, gutxi gorabehera, artatutako kontsulten ehuneko 69 da, eta adikzio-arazoengatik kontsulten ehuneko zortzi. "Ez du tratamendu-programarik behar" programak osasun mentaleko kontsultara joaten diren eta lehen kontsultan alta ematen zaien pazienteak islatzen ditu; aztertutako aldian 7.329 paziente izan dira eta 10.569 kontsulta izan dira.





• 2019an, OMZ guztietarako, NMA da jarduera-portzentajerik handiena, % 40 eta % 60 artekoa baita; nabarmentzekoak dira Donibaneko (% 15) eta Arrosadiko (% 11) OMZetako lehen kontsultan izandako alden ehunekoak, eta Alde Zaharreko (% 24) eta Tuterako (% 12) OMZetako geroratu/sailkatu gabeen ehunekoak.

Txosten honen 5. eranskinean zerrendatzen da programa bakoitzak OMZ bakoitzerako 2019an izanen duen pisu erlatiboa.

Adierazleak

• Prebalentzia: Nahasmendu mentala duten biztanleak, mila biztanleko, erreferentziako biztanleriarentzat: Artatutako pazienteak/ erreferentziako biztanleria:

OMZ	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Buztintxuriko OMZ	33	35	37	39	44	46
Antsoaingo OMZ	38	42	43	45	44	44
Ermitagañako OMZ	30	40	42	41	36	37
Donibaneko OMZ	24	25	27	30	33	36
Tafallako OMZ	27	28	30	32	35	35
Tuterako OMZ	29	31	32	31	33	34
Lizarrako OMZ	27	28	29	30	32	32
Arrosadiko OMZ	28	27	27	28	32	32
Burlatako OMZ	30	30	32	30	31	31
Alde Zaharreko OMZ	29	29	37	29	30	31
Batez besteko prebalentzia	30	31	34	33	35	36

Nafarroan, 1.000 pertsonatik 30 eta 36 artean (% 3 eta % 4 artean) buruko arazoren bat izan dute 2014-2019 aldian, eta OMZetan artatu dituzte.

2019an, prebalentzia handiena Buztintxuri eta Antsoaingo OMZetan dago, 1.000 biztanleko 40 pertsona baino gehiago baitaude, eta txikiena Alde Zaharrean eta Burlatan, 1.000 biztanleko 31 pertsona baitaude.

Adierazle horri dagokionez, adierazi behar dugu OMEk uste duela biztanleen ehuneko bederatzik osasun mentaleko arazoren bat duela.

Espanian, 2017ko Osasun Mentalaren Inkesta Nazionalaren emaitzen arabera⁴, 15 urtetik gorako pertsonen % 10,8k adierazi zuen osasun mentaleko arazoren bat diagnostikatu ziotela. Nafarroari dagokionez, % 10,71k gaixotasun mental bat du, gizonen % 8,37k eta emakumeen % 13,02k.

Bestalde, European Study of the Epidemiology of Mental Disorders (ESE-MED)⁵ erakundearen (2006) gure herrialdeko biztanleria orokorreko nahasmendu

⁴https://www.mscbs.gob.es/estadEstudios/estadisticas/encuestaNacional/encuestaNac2017/SALUD_MENTAL.pdf

⁵ <http://public-files.prbb.org/publicacions/e144ec9a-b14a-4cfd-bc18-56bf5c447ae6.pdf>





psikiatrikoen epidemiologiari buruz egindako azterlanaren arabera, ehuneko 8,4koa da nahasmendu mentalen prebalentzia urtebetean.

Nafarroan zenbatetsitako prebalentzia ehuneko zortzi eta hamar artekoa dela uste badugu, aipatutako azterketen arabera, ondoriozta dezakegu nahasmendu mentala duten eta tratamendua behar duten pertsonen erdiek baino gehiagok ez dutela tratamendurik jasotzen, artatutako prebalentzia biztanleriaren ehuneko hiru eta lau artean baitago (1.000 biztanleko 30 eta 36 paziente artean); OMEk eta Osasun Mentalaren Konfederazio Nazionalak⁶ konklusio bera ateratzen dute beren txostenetan, eta hala jasota dago, halaber, Osasun Sistema Nazionalaren 2009-2013 aldirako Osasun Mentaleko Estrategian⁷.

Hala ere, konklusio hori zehaztu behar dugu: OMZetako asistentzia-eskaerak gora egiten du urtero, eta, eskaera horri erantzunez, gora egiten du lehen kontsul-tek eta artatutako pazienteen kopuruak. Gainera, prebalentzia-adierazleak OMZe-tan artatutako pazienteak jasotzen ditu, eta ez dira kontuan hartzen nahasmendu mental arin baten ondorioz oinarritzko osasun laguntzan artatzen diren pazienteak.

• Eragina: Urte horretan lehen kontsulta izan duten pazienteen kopurua 1.000 biztanleko.

	2015	2016	2017	2018	2019
Antsoingo OMZ	15	15	16	18	18
Buztintxuriko OMZ	14	15	16	19	17
Donibaneko OMZ	9	11	12	15	17
Tuterako OMZ	13	14	13	15	16
Ermitagañako OMZ	22	23	21	16	15
Lizarrako OMZ	12	12	13	12	13
Arrosadiko OMZ	10	10	10	14	13
Tafallako OMZ	13	12	11	13	13
Burlatako OMZ	9	11	11	12	12
Alde Zaharreko OMZ	11	15	10	12	12
Guztira	13	13	13	14	14

Lehen kontsul-ten guztizko kopuruak gora egin du urtero 2015-2019 aldian. 1.000 biztanleko pazienteen intzidentziak gora egin du 2018an; urte horretan eta hurrengoan, batez beste, 14 paziente joan ziren osasun mentaleko kontsultara 1.000 biztanleko.

2019an, intzidentzia handiena Antsoingo, Buztintxuriko eta Donibaneko OMZetan izan zen (17 paziente 1.000 biztanleko), eta txikiena Burlatako eta Alde Zaharreko OMZetan (12 paziente 1.000 biztanleko).

⁶ <https://consaludmental.org/publicaciones/Guia-estilo-salud-mental.pdf>

⁷ https://www.msrebs.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/excelencia/salud_mental/ESTRATEGIA_SALUD_MENTAL_SNS_PAG_WEB.pdf





• Maiztasuna: Kontsulta-kopurua 1.000 biztanleko, erreferentziako biztanleriaren kasuan.

OMZ	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Buztintxuriko OMZ	273	312	349	343	337	306
Antsoingo OMZ	282	344	351	353	323	281
Ermitagañako OMZ	176	184	200	203	193	201
Burlatako OMZ	228	225	211	199	180	182
Donibaneko OMZ	160	165	193	190	182	182
Alde Zaharreko OMZ	168	178	349	172	177	171
Arrosadiko OMZ	172	171	160	154	165	161
Lizarrako OMZ	167	166	173	172	166	155
Tuterako OMZ	121	145	152	143	145	152
Tafallako OMZ	121	127	128	127	125	130
Batez besteko maiztasuna	1.867	2.017	2.268	2.057	1.992	1.921

1.000 biztanleko kontsulta-kopuruak alde handiak ditu zentrozen artean; Buztintxuri eta Antsoingo zentroak nabarmentzen dira beren maiztasunagatik, horien ratioa Tafallako, Tuterako eta Lizarrako zentroena halako bi baita.

Profesionalen ratioak, herriaren arabera

ENEreren arabera, kalitatezko asistentzia-prestazio baterako, helduen OMZetako 100.000 biztanleko honako lanbide-ratio hauek behar dira: psikiatriako bost profesional, psikologia klinikoko lau eta erizaintzako hiru.

Nafarroan, OMZ bakoitzeko aipatutako profesionalen ratioak honako hauek dira:

	Psikiatria	Psikologia klinikoa	Erizaintza
Antsoingo OMZ	9	4	4
Burlatako OMZ	6	3	3
Buztintxuriko OMZ	8	5	5
Alde Zaharreko OMZ	6	2	4
Ermitagañako OMZ	6	4	4
Lizarrako OMZ	6	3	3
Arrosadiko OMZ	5	3	3
Donibaneko OMZ	6	4	3
Tafallako OMZ	5	4	3
Tuterako OMZ	5	3	2
Psikiatra/biztanleria ratioa	6	4	3





- Psikiatriako profesionalaren ratioa 100.000 biztanleko sei profesionalena da, eta ENEk kalkulaturako ratioa gainditzen du; OMZ guztiek gainditzen dute estimaturako ratio hori, eta nabarmentzekoak dira Antsoingo eta Buztintxuriko OMZk, 100.000 biztanleko bederatzi eta zortzi profesionalen ratioak baitituzte.

- Psikologia klinikoko profesionalen ratioa lau profesionalakoa da 100.000 biztanleko. Burlatako, Lizarrako, Arrosadiko eta Tuterako OMZek, hiru profesionalen ratioarekin, eta Alde Zaharreko OMZk, birekin, ez dute betetzen ENEk kalkulaturako profesional horien ratioa.

- Erizaintzako profesionalen ratioa hiru profesionalakoa da 100.000 biztanleko, eta ENEk ezarritako ratioa betetzen du OMZ guztietan, Tuterako OMZn izan ezik; aldiz, Antsoingo, Ermitagañako eta Alde Zaharreko OMZek (lau profesionalen ratioa) eta Buztintxuriko OMZk (bost profesional) gainditu egiten dute ratio hori.

6. eranskinean zehatz-mehatz jasotzen dira profesionalen kopurua eta OMZko ratioak.

Azken batean, pazienteen eta baliabide komunitarioetako kontsulten kopuruak gora egin du 2014-2019 aldian, eta murriztu egin da paziente bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua. NMA duten pazienteek gora egiten dute urtero, eta, 2019an, artaturako paziente guztien ehuneko 49 eta kontsulta guztien ehuneko 37 egiten dute. OMZ guztietan pisu erlatibo handiena duen programa da.

100.000 biztanleko profesionalen ratioak ENEk adierazitako kalitate-ratioetara iristen dira.

Antsoingo eta Buztintxuriko OMZek dute 100.000 biztanleko profesional-ratio handiena, baina prebalentzia, intzidentzia eta maiztasun handiena duten zentroak ere badira; aldiz, Tafallako OMZn daude profesionalen ratio apalenak, prebalentzia, intzidentzia eta maiztasunaren adierazleak nabarmen txikiagoak baitira.

B) Bitarteko baliabideak

Bitarteko zerbitzuak honako hauek osatzen dituzte: eguneko ospitaleek (aurrerantzean, EO), Narriadura Kognitiboko Unitateak (aurrerantzean, NKU) eta Komunitate Terapeutikoeak (aurrerantzean, KT).

Eguneko ospitaleak (EO)

EOak ospitaleratze partzialerako osasun-baliabideak dira. Ospitaleratze osoaren ereduaren alternatiba gisa konfiguratu dira, fase akutuan edo subakutuan nahasmendu mentala duten pertsonentzat. Haien abantaila nagusia esku-hartze terapeutiko intentsiboak eskaintzea da, pertsona bere ingurune soziofamiliarrean mantenduz.

NOMSen hiru EO orotariko daude, pertsona helduei arreta emateko, bi Iruñean eta bat Tuteran, eta hiru EO monografiko: psikogeriatrikoa, haur eta gazteena eta adikzio-nahasmenduetarakoa.





• EO bakoitzeko plazak egonkor mantendu dira 2014-2019 aldian, eta honako hauek dira:

Eguneko ospitalearen mota	Kokapena	Plaza kopurua 2014-2019 aldian
Orotarikoa		
EO 1 Pabilioi Zuria	Nafarroako Ospitalegunea (Iruña)	20
EO 2 Irubide	Txantrea (Iruña)	30
EO 5 Tutera	Reina Sofia Ospitalea (Tutera)	10
Monografikoa		
EO Psikogeriatrikoa	San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoa (Iruña)	20
Haurren eta Gazteen EOa	Txantrea (Iruña)	12
Adikzio-nahasmenduetarako EOa (Zuria)	Nafarroako Ospitalegunea (Iruña)	15

100.000 biztanleko EO plazen ratioa, erreferentziazko biztanleriaren eta 2014-2019 aldirako bilakaeraren arabera, taula honetan jasotzen da:

EO mota	2014	2015	2016	2017	2018	2019
17-64 urteko populazioa	408.858	406.032	404.547	405.107	406.762	417.557
Orotariko EOaren ratioa	15	15	15	15	15	14
> 64 urteko biztanleria	119.215	121.416	122.926	124.513	126.436	128.391
EO Psikogeriatrikoaren ratioa	17	16	16	16	16	16
0-16 urteko populazioa	112.717	113.028	113.174	113.614	114.356	108.266
Haur eta Gazteen EOaren ratioa	12	11	11	11	10	11
> 16 urteko populazioa	528.073	527.448	527.473	529.620	533.198	545.948
Adikzio Nahasmenduetarako EOaren ratioa	3	3	3	3	3	3

ENEk 100.000 biztanleko hamar plaza ezartzen du kalitate-irizpide gisa helduen ospitaleratze partzialerako unitateentzat, hau da, helduen EOentzat; Nafarroak, 100.000 biztanleko 15 plaza izanik, kalitate-irizpide hori gainditzen du bere orotariko EOetan.

100.000 biztanleko, EO monografikoetako (Psikogeriatrikoa, Haur eta Gazteak eta Adikzio-nahasmenduak) plazak 16, 11 eta hiru dira, hurrenez hurren, baina ez dugu konparazio-ratiorik baliabide horietarako.

• Bitarteko baliabideen jardueraren adierazleak eta horien bilakaera, 2014-2019 aldian, txosten honekin batera doan 7. eranskinean jasotzen dira.





2018. eta 2019. urteetarako, honako hauek dira EOen jarduera-adierazleak:

	Altak		Egonaldia, batez beste		Okupazio-indizea		Errotazio-adierazlea	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
EO mota								
EO 1 Pabilioi Zuria	137	122	33	32	89	79	7	6
EO 2 Irubide	173	154	34	32	78	70	6	5
EO 5 Tuterako	75	79	22	20	70	64	8	8
EO Psikogeriatrikoa	107	90	40	41	85	76	5	5
Haurren eta Gazteen EOa	41	29	43	66	60	65	4	2
Adikzio Nahasmendueta-rako EOa	87	80	36	42	86	96	6	6

Jarduerak 2018an eta 2019an izan duen bilakaerari eta, oro har, aztertutako aldi osoari dagokionez, honako hauek nabarmentzen ditugu:

a) Alten kopuruak, oro har, behera egin du EO guztietan, 2014-2019 aldian. Bereziki nabarmentzekoa da Haur eta Gazteen EOaren jaitsiera, 2019an 29 alta egon baitira, 2018an 41 izan ziren bitartean.

b) Orotariko EOen batez besteko egonaldia (egonaldiak/altak) jaitsi egin da 2018. urtearekin alderatuta; hala ere, areagotu egin da EO monografikoetan, batez ere haur eta gazteen EOan, 43 egunetik 66 egunera igaro baita batez besteko egonaldia. Nabarmentzekoa da Tuterako EOaren batez besteko egonaldia, 20 egunekoa, beste bi orotariko EOekin aldearatu (32 egun).

c) Okupazio-indizeak (egonaldiak/oheak* urteko egunak) aldeak ditu EOen artean: adikzio-nahasmenduetarakoak (15 plaza) % 96ko okupazio-indizea du, eta Tuterako eta Haur eta Gazteen EOek % 64ko eta % 65eko okupazio-indizeak dituzte, hurrenez hurren.

d) Eguneko ospitaleen errotazio-adierazlea (altak/plazak) egonkor mantendu da aztertutako aldian, eta Haur eta Gazteen EOan jaitsi egin da, zentroko batez besteko egonaldiaren igoerarekin bat etorritik.

Narriadura Kognitiboko Unitatea (NKU)

Narriadura Kognitiboko Unitateak (NKU) hasierako demenzia duten pazienteak, Neurologia eta Geriatria Zerbitzuetatik deribatutakoak, artatzen ditu modu ambulatarioan.

Bi NKU daude, bata 80 pazienterentzako gaitasunarekin, EO Psikogeriatrikoari lotua, eta bestea Tuterako EOan, 24 pazienterentzako gaitasunarekin, 2018ko maiatzetik martxan dagoena.

2018ko bigarren seihilekoan, pilotatze bat hasi zen oinarrizko osasun laguntzako hainbat zentrorrekin, pazienteak zuzenean estimulazio kognitiboko tailerretara bideratzeko, zerbitzuaren eskuragarritasuna eta ekitatea areagotzeko helburu nagusiarekin. 2019an, osasun mentaleko zentro guztietara hedatu zen pilotatzea.





Hau da jardueraren bilakaera 2018 eta 2019ko NKUetan:

EO mota	Altak		Egonaldia, batez beste		Okupazio-indizea		Errotazio-adierazlea	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
NKU Psikogeriatrikoa	170	201	21	25	74	77	3	3
Tuterako NKU	6	31	20	31	63	64	2	2

Altek, batez besteko egonaldiak eta okupazio-indizeak gora egin dute 2019an, aurreko urtearekin alderatuta.

NKU Psikogeriatrikoaren okupazio-indizea, 2018an (% 74) jaitsi egin zen aurreko urteekin alderatuta, baina adierazi behar dugu pazienterik ez dagoela baliabide hori eskuratzeko itxarote-zerrendan.

Komunitate Terapeutikoak (KT)

Komunitate Terapeutikoei (KT) adizio-nahasmenduak dituzten pazienteen arreta osatzen dute. Baliabide hori hiru KTrekin itunduta dago.

Komunitate terapeutikoetan sartzeko eskaeren kudeaketa Eriaren Arretarako Unitatearen (EAU) bidez eta komunitateetan beraietan egiten da; ez dago itxarote-zerrendarik komunitate horietan sartzeko.

• KTen gastuaren bilakaera eta itundutako plazen kopurua taula honetan ikus daitezke:

KTak	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Plazak	90	90	90	90	90	75
Guztira	1.820.089	1.822.757	1.778.749	1.723.046	1.777.974	2.283.380

2019an, KTen gastua 2,28 milioi eurokoa izan da, eta aurreko urteekin alderatuta, % 28ko igoera izan du; igoera hori KTekin sinatutako hitzarmen berrien eta tarifen eguneratzearen ondorio da.

Hitzarmen horietan, KTetako plaza-kopurua 90etik 75era jaitea erabaki zen, prezioa handituz, hitzarmenek hamar urte baino gehiago baitzaramatzen eguneratu gabe; bestalde, egonaldiaren iraupena aldatu zen, 12 hilabete gehi sei hilabeteko luzapenetik bederatzi hilabeteko luzapenera pasatuz, arrazoi klinikoengatik justifikatuta.





2014-2019 aldiaren, honako hauek izan dira KTen jarduerari buruzko datuak:

KTak	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Pazienteak	215	215	218	212	224	233
Sarrerak	148	137	138	141	151	163
Egonaldiak	33.441	33.328	32.404	30.934	32.290	27.369
Okupazio-indizea	102	101	99	94	98	100
Errotazio-adierazlea	1,6	1,12	1,53	1,56	1,67	2,17

KTen okupazio-indizea % 100era iristen da. Paziente horien ezaugarriak direla eta, egonaldiak altuak dira eta errotazio-adierazlea, berriz, baxua.

Bestalde, paziente bakoitzeko egonaldiaren iraupena mugatzean, pazienteen kopuruak gora egiten du eta errotazio-adierazleak gora.

Azken batean, orotariko EOetako plazak nahikoak dira nahasmendu mentala duten helduen ospitaleratze partzialerako; horien okupazio-indizeak paziente gehiago artatzea ahalbidetzen du. Gainera, 100.000 biztanleko duen ratioak nabarmen gainditzen du ENEk baliabide horietarako ezarritako kalitate-irizpidea.

EO monografikoei dagokienez, ez dugu haien nahikotasuna baloratzeko erreferentziatzeko adierazlerik; hala ere, EO psikogeriatrikoen eta haur eta gazteentzako EOen okupazio-indizeak aukera ematen digu ondorioztatzeko bi EO badagoela plazarik erabilgarri. Aldiz, adikzio-nahasmenduetarako EOak okupazio-indize handia du, eta, urte bakoitzeko abenduaren 31n, EO hori eskuratzeko prozesu irekian dauden pazienteak daude.

NKUei dagokienez, erreferentziatzeko adierazlerik ez dugu, baina okupazio-indizeak aukera ematen digu ondorioztatzeko dauden bi unitateetan dagoela plazarik erabilgarri.

2019an, KTetan itundutako plazen kopurua ehuneko 20 jaitsi da, eta gastua, berriz, ehuneko 28 igo da. Era berean, gaixo-kopuruak gora egin du, egonaldia urtebetetik bederatzi hilabetera murriztu baita baliabide mota horretan. Okupazio-indizea ehuneko 100ekoa izan da.

C) Ospitale-baliabideak

NOMSeko ospitale-baliabideak honako hauek osatzen dituzte: ospitaleratze psikiatriko laburreko unitateak (OPU), egonaldi ertain eta luzeko ospitalizazio unitateak (EEU eta ELU) eta Errehabilitazio Unitatea (EU).

Baliabide horiek zirkuitu integral eta integratu bat osatzen dute, NMLa izan eta ospitaleratzea behar duten pertsonen tratamendu intentsibo eta multidiziplinarrerako. Egoera klinikoaren eta haien beharren arabera, NMLa duten pertsonen laguntza-zirkuitu osoko laguntza behar dezakete. Zirkuitu hori honako hauek osatzen dute: OPU-EEU-ELU-EU (programa osoa)-EU (asteko programa)-EU (eguneko programa).





Ospitaleratze psikiatriko laburrerako unitateak (OPU)

OPUek arreta eta zaintza integrala ematen diete barneratze-erregimenean deskonpentsazio psikopatologiko akutua duten pazienteei.

NOMSek helduentzako hiru OPU ditu: A unitatea eta B unitatea Nafarroako Ospitalegunean, 27 plazarekin eta 28 plazarekin, hurrenez hurren, eta unitate bat Reina Sofia Ospitalean (Tutera), bederatzi plazarekin. Nafarroako Ospitaleguneko B unitateak lau plazako ospitalizazio unitate bat du haur eta gazteentzat, eta NFK-ko haur eta gazte guztiei ematen die arreta.

Unitate horiek 24 orduko larrialdi psikiatrikoak eta kontsulta arteko programak eta loturako psikiatriko programak artatzen dituzte. Nafarroako Ospitaleguneko A eta B unitateek jarraipeneko kanpo-kontsultak ere egiten dituzte.

• 100.000 biztanleko OPU plazen ratioak, erreferentziako biztanleriaren eta 2014-2019 aldirako bilakaeraren arabera, honako hauek dira:

OPU mota	2014	2015	2016	2017	2018	2019
> 16 urteko populazioa	448.994	448.490	448.905	451.005	454.313	459.496
Helduentzako OPUaren ratioa (Nafarroako Ospitalegunea)	11	11	11	11	11	11
> 16 urteko populazioa Tutera	79.079	78.958	78.568	78.615	78.885	79.820
Helduentzako OPUa (Tuterako Reina Sofia Ospitalea)	11	11	11	11	11	11
0-16 urteko populazioa	112.717	113.028	113.174	113.614	114.356	114.898
Haurren eta Gazteen OPUa	4	4	4	4	4	4

ENEK ez du kalitate-irizpiderik ezartzen OPUko plazak direla eta.

• OPUen jardueraren adierazleak eta horien bilakaera, 2014-2019 aldian, txosten honekin batera doan 8. eranskinean jasotzen dira.

2018. eta 2019. urteetarako, honako hauek dira OPUen jarduera-adierazleak:

EO mota	Altak		Egonaldia, batez beste		Okupazio-indizea		Errotazio-adierazlea	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Helduentzako OPUa (Nafarroako Ospitalegunea)	834	770	20	21	90	88	17	15
OPUa (Tuterako Reina Sofia Ospitalea)	195	173	11	11	63	56	21	19
Haurren eta Gazteen OPUa	43	31	25	31	61	55	9	7

Jarduerak 2018an eta 2019an izan duen bilakaerari eta, oro har, aztertutako aldi osoari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:





a) Altek eta errotazio-adierazleak behera egin dute 2019an, aurreko urteekin alderatuta; hala ere, batez besteko egonaldiak gora egin du 2019an, 2018ko datuekin alderatuta. Hau da, paziente gutxiago egon dira ospitaleratuta OPUetan, baina egun gehiago egon dira ospitaleratuta.

b) Okupazio-indizea (egonaldiak/oheak* 365) txikiagoa izan da 2019an, aurreko urteekin alderatuta, OPU guztietan. Bereziki nabarmentzekoa da Tuterako OPUaren okupazioa, % 56rekin, Nafarroako Ospitaleguneko OPUarekin alderatuta, % 88rekin; nahiz eta bi OPU horiek populazioaren araberrako plaza-ratio berarekin dimentsionatuta egon, haien jarduera nabarmen txikiagoa da.

Ospitaleratze psikiatriko laburreko unitatean ez dago itxarote-zerrendarik: ospitaleratzeak programatu egiten dira edo larrialdietatik sartzen dira.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitalizazio unitateak (EEU eta ELU)

EEUa eta ULEa NMLa duten pazienteentzako ospitaleratze-erako bi osasun baliabide dira, San Frantzisko Xabierkoa zentroan daudenak.

- EEUa NMLa duten paziente helduei zuzendutako osasun-baliabidea da: paziente horiek ospitaleratze luzeagoak behar dituzte egonkortzeko eta errekuertatzeko, eta haien bidez pazienteen errehabilitazio funtzional eta soziala lortu nahi da, sintomak hobetzearekin batera. Eguneko 24 orduetan ematen da arreta, hiru hilabeteko programekin, gutxi gorabehera.

EEUa itunduta egon da 2018ko urrira arte, San Frantzisko Xabierkoa zentroaren esparruan Osasun Mentaleko EEUa abian jarri den arte.

Hona hemen EEUak 2014tik 2019ra bitartean izan dituen jarduera-adierazleak:

Jarduera	Kudeaketa itundua					Zuzeneko kudeaketa	
	2014	2015	2016	2017	2018*	2018**	2019
Plazak	28	28	28	28	28	28	28
Pazienteak	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen	50	124
Sarrerak	110	105	109	93	63	50	113
Altak	113	107	108	93	90	24	120
Egonaldiak	10.155	10.208	10.229	10.222	7.836	2.348	7.458
Egonaldia, batez beste	90	95	95	110	87	47	66
Okupazio-indizea	99	100	100	100	77	80	73
Errotazio-adierazlea	4	4	4	3	3	2	4

*2018ko urrira arte

**2018ko azaroan/abenduan

EEU itunduaren okupazio-indizea % 100ekoa zen, Osasun Mentaleko EEU berriaren okupazio-indizea baino handiagoa; 2019an, egonaldiak murriztu egin dira





EEUaren zuzeneko kudeaketa ezartzearekin, bai eta, ELU sortzearen ondorioz ere, zeinean pazienteak sartzen baitira EEUan hasitako tratamenduak jarraitzeko.

- ELUa osasun-baliabide espezifikoa da NMLa duten paziente helduentzat, abordatze intentsibo kliniko eta errehabilitatzaile bat behar denean. Pazienteak eguneko 24 orduetan bertan geratzen dira, urteko egun guztietan. Unitate hori 2018ko ekainean sortu zen, eta 28 plaza ditu.

2019an, ELUaren jardueraren lehen urte osoan, 49 paziente artatu ditu baliabide horrek, 197 eguneko batez besteko egonaldiarekin eta % 66ko okupazio-indizearekin.

Errehabilitazio Unitatea (EU)

Errehabilitazio Unitatea (EU) sektoreaz gaindiko osasun-baliabide bat da, eta honako eginkizun hauek ditu: arreta espezializatua eta diziplina anitzekoa ematea, gaixoberritzeak prebenitzea eta NMLa duten pertsonen autonomia eta integrazioa ahalik eta gehien sustatzea, errehabilitazio psikosozialeko programa integral, espezifikoa eta indibidualen bidez.

EUa, funtsean, hiru programaren inguruan egituratzen da: eguneko ospitaleratzea (32 plaza), asteko ospitaleratzea (12 ohe) eta erabateko ospitaleratzea (16 plaza).

- EUaren programetako jardueraren adierazleak eta horien bilakaera, 2014-2019 al-dian, txosten honekin batera doan 8. eranskinean jasotzen dira.

2018-2019 aldian, honako hauek izan dira EUaren jarduerari buruzko adierazleak:

EU programak	Altak		Egonaldia, batez beste		Okupazio-indizea		Errotazio-adierazlea	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Eguneko ospitaleratzearen programa	51	54	93	89	68	60	1.59	1.69
Asteko ospitaleratzearen programa	25	23	155	161	92	85	2.08	1.92
Erabateko ospitaleratzearen programa	26	27	211	207	97	92	1.63	1.69

EUaren hiru programek jarduera apalagoa izan dute 2019an aurreko urteekin alderatuta, 28ko plaza dituen ELUa sortzearen ondorioz.

100.000 biztanleko ratioa

ENEk, kalitate-irizpide gisa, 100.000 biztanleko zortzi plaza ezartzen ditu egonaldi ertaineko errehabilitazio unitateetan, eta horien artean daude EEUak, ELUak eta EUak.





Unitate horien 100.000 biztanleko plazen ratioa, erreferentziazko biztanleriaren eta 2014-2019 aldirako bilakaeraren arabera, honako hau da:

EO mota	2014	2015	2016	2017	2018	2019
> 16 urteko biztanleria	528.073	527.448	527.473	529.620	533.198	545.948
Plaza-kopurua (EEU+ELU+EU)	88	88	88	88	116	116
EEU-ELU-EU ratioa	17	17	17	17	22	21

100.000 biztanleko plazen ratioak nabarmen gainditzen du urte guztietan ezarritako kalitate-irizpidea, eta gora egin zuen nabarmen 2018an, ELUa sortu zenean, 28 plazarekin.

Azken finean, Nafarroako Ospitaleguneko OPUen eta EUaren jarduerak behera egin du 2019an. Haren okupazio-indizea ere jaitsi egin da, eta nabarmentzekoa da Tuterako OPUaren okupazio-indize txikia, zeina % 55 eta % 63 artekoa izan baita aztertutako aldi osoan.

Ospitale-baliabideetako plazak nahikoak dira; izan ere, baliabide horien okupazio-indizeei esker paziente gehiagori ematen zaie arreta, eta 100.000 biztanleko plaza-ratioa (EEU-ELU-EU), zeina 17 plazakoa izan baita 2017ra arte eta 22 eta 21 plazakoa 2018an eta 2019an, hurrenez hurren, ENEk ezarritako ratioetik oso gora dago.

D) Azpiegiturak

2014-2019 aldian, honako gastu hau egin da osasun mentaleko azpiegituren inbertsioetan:

Deskribapena	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Guztira
Osasun Mentaleko Kudeatzailtza	351.748	3.845.328	3.946.625	5.130.888	1.028.616	925.765	15.228.970
Tuterako Barrutia	4.399	441	3.303	25.106	8.711	9.220	51.179
Lizarrako Barrutia	3.620	1.220	615	0	600.000	600.000	1.205.455
Inbertsioak, GUZTIRA	359.767	3.846.989	3.950.543	5.155.993	1.637.327	1.534.985	16.485.604

2014-2019 aldiko guztizko gastuari dagokionez, inbertsioak ehuneko bostakoa da; Osasun Mentaleko Kudeatzailtzak 2015-2017 urteetan egindako inbertsioak San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoko I. eta II. faseei dagozkie. Inbertsio horiek hasiera batean 2008-2012 Nafarroa Planean programatu ziren eta gaur egun EEUak eta ELUak, EA, LGP eta EO Psikogeriatrikoa eta TTPa hartzen dituzte.

2019an, 817.838 euro bideratu ziren obra txikiak egitera eta instalazioak hobetzerara, batez ere, San Frantzisko Xabierkoaren Zentroan.





Lizarrako Eremuan egindako inbertsioak Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko (GOO) hegoaldeko pabiloia berritzeko obrei dagozkie, OMZ berrirako eta beste egoitza batzuetarako egokitzeko. Lanen zenbatekoa, guztira, 1,68 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik 1,20 milioi inguru OMZri dagozkiola kalkulatu da. Inbertsio horiei esker, OMZ Lizarrako eremutik GOOaren eremura lekualdatu ahal izan da, eta haur eta gazteen arreta eta helduen arreta bereizi ahal izan dira, biztanleria horri arreta emateko espazio propio bat ezarritz.

Nahasmendu mentala duten pazienteei arreta emateko azpiegiturak bisitatu ditugu, eta instalazio batzuen eta besteen artean alde handia dagoela egiaztatu dugu; hala, San Frantzisko Xabierkoaren Zentroan dauden unitateek instalazio berriak eta egokiak dituzte pazienteei arreta emateko, baina Pabiloi Zuria EOak eta Adikzio-nahasmenduetarako Zuria EOak (biak ere Nafarroako Ospitalegunean) eta Iru-bide EOak (Txantrean) instalazio zaharkituak dituzte pazienteei arreta emateko, eta, horietan, eraberritze- eta mantentze-lan txikiak baino ez dira egin, haien erabilera funtzionalari begira.

OPUak ere bisitatu ditugu, Nafarroako Ospitaleguneko barruko pabiloi zaharretan daudenak, eta haietan erabilerarako beharrezkoak diren mantentze-lanak egin dira. Obra horiek ez dira nahikoak ospitaleratutako pertsonen zerbitzurako instalazio egokiak izateko.

2019-2023 aldirako Osasun Mentaleko Plan Estrategikoaren helburua da Nafarroako Ospitalegunean ospitaleratzerako azpiegitura berri bat sustatzea, larritasun-mailen, adin-taldeen eta patologien araberrako arreta malgua ahalbidetzeko, eta gisa azpiegitura hori planifikatzeko eta gauzatzeko kronograma ezartzen du funtsezko adierazle gisa. Hala ere, txosten hau egin den egunean, ez da jarduketarik hasi proiektua lizitatzeko eta adjudikatzeko, horixe baita aurreikusitako kronogramaren lehen fasea.





IV.2.2. Baliabide sozialak eta soziosanitarioak

Azpihelburua	Auditoretzako irizpideak
2.2. Nahikoak eta egokiak al dira Nafarroako Osasun Mentalearen Sarean erabilitako baliabide sozialak eta soziosanitarioak?	Gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabide sozialak eta soziosanitarioak. Plaza erabilgarriak. Ratioak 100.000 biztanleko. Itxaron zerrenda. Plazen eta gastuaren bilakaera Laneratzea sustatzeko zerbitzuak: ZOak eta EZBak. Plazen kopurua. Plazen eta gastuaren bilakaera

Gaixotasun mentala duten pertsonen arreta emateko baliabide nagusiak, Gizarte Zerbitzuen Zorroan daudenak, PAGNAk kudeatzen ditu⁸, eta horien deskribapena 9. eranskinean dago. Honako hauek dira:

Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako arreta			
Baliabide mota	Zentroa	Plazak	
PRESTAZIO BERMATUAK			
Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako arreta (GMELak)	San Frantzisko Xabierkoa zentroa	83	
	Padre Menni (Iruña)	42	
	Benito Menni (Elizondo)	40	
Etxe-egoitza	Félix Garrido (Iruña)	26	
Etxebizitza gainbegiratua	Iruña	4	
	Tutera	4	
Zaintzapeko etxebizitza / Etxebizitza funtzionala	Padre Menni (Iruña)	22	
Esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua (EHSOZ)	Iruña	185	
	Ipar-ekialdea	10	
	Tutera	19	
	Lizarra	7	
Errehabilitazio psikosozialeko zerbitzua (EPSZ)		Eguneko zentroa	Programak
	Félix Garrido (Sarriguren)	30	35
	Benito Menni (Elizondo)	15	20
	Arga zentroa (Iruña)	30	35
	Ordoiz zentroa (Lizarra)	30	35
	Queiles zentroa	30	35
	Padre Menni (Iruña)	-	31
PRESTAZIO EZ-BERMATUAK			
Zentro okupazionala	Iruña	185	
	Tutera	30	
Etxebizitza laguntzaduna	Iruña	7	
	Burlata	2	

Zerbitzu horiek ematen dira baliabide berekiekin kudeatutako zentro publikoetan (San Frantzisko Xabierkoa zentroa), kanpoko baliabideekin kudeatutako zentro publikoetan (Félix Garrido egoitza), eta zentro pribatuetan, kontratuak adjudikatuz enpresa edo entitate kudeatzaileei.

⁸ San Frantzisko Xabierkoa zentroa izan ezik, hori Osasun Mentaleko Kudeatzaileak kudeatzen baitu





San Frantzisko Xabierkoa zentroa Osasun Mentaleko Kudeatzaitzak kudeatzen du, eta egoitza-unitate soziosanitarioak ditu; lehengo ospitale psikiatrikoko psikogeriatriako eta gaixo mentalentzako egoitza laguntzaduneko hondar-plazak dira, pazientek hil ahala iraungitzen direnak.

Gizarte Zerbitzuen Zorroak adierazten duenez, ezin badira eskuratu gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-arretako plazak, zaintzapeko etxebizitzetakoak, etxebizitza funtzionaletakoak eta errehabilitazio sozialeko zentroetakoak, ez dagoe-lako nahikoa baliabiderik sistema publikoaren barnean, ordezkotako prestazio ekonomikoa emanen da, betiere zerbitzu hori eskuratzeari loturik egonen dena (ZLPa).

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren ekainaren 1eko 210/2009 Foru Aginduak zerbitzuari loturiko prestazioak arautzen ditu, eta laguntza ekonomikoa hori salbuespenetzkoa dela dio.

Baliabide sozialen eta soziosanitarioen bilakaera

Baliabide sozialen eta soziosanitarioen gastua eta 2014-2019 bitartean baliabide horietan erabilgarri egon diren plazak txosten honen 8. eta 9. eranskinetan jaso dira.

• Hona hemen baliabideen 2014ko eta 2019ko gastua, baliabide bakoitzean ematen den arretaren arabera, zainketen intentsitate handienetik txikienera ordenatuta, bai eta baliabide horietan erabilgarri egon diren plazak ere:

BALIABIDE MOTA	2014		2019		2019/2014 aldea (%)	
	Plazak	Zenbatekoa	Plazak	Zenbatekoa	Plazak	Zenbatekoa
Egoitza laguntzaduna NMLa duten pertsonentzat (GMELA)						
Plaza itunduak	82	1.412.544	82	1.378.648	0	-2
ZLPak	74	1.911.650	128	3.347.106	73	75
GUZTIRA	156	3.324.194	210	4.725.754	35	42
Etxe-egoitza						
Plaza itunduak*	25	442.288	26	482.706	0	9
Errehabilitazio psikosozialeko zentroa (EPSZ)						
Programen kontratua	158	730.763	171	1.070.650	8	47
Eguneko zentroaren kontratua	135	1.491.135	135	1.532.863	0	3
Kontratuko gastu garbia	-	2.145.725	-	2.560.264	-	19
Zaintzapeko etxebizitza						
Plaza itunduak	18	184.609	22	186.260	22	1
ZLPak	4	52.963	22	376.803	450	611
GUZTIRA	22	237.572	44	563.063	100	137
Etxebizitza gainbegiratua						
Plaza itunduak	4	48.867	8	169.739	100	247
ZLPak	0	-	39	628.759	-	-
GUZTIRA	4	48.867	47	798.498	1.150	1.534
Esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua (EHSOZ)						
Plaza itunduak	221	431.760	221	495.793	0	15
Familia eta gizarte integrazioarako laguntza						
Dirulaguntza**	34	183.691	43	232.225	26	26
Etxebizitza laguntzaduna						
Plaza publikoak	4	-	4	-	25	-
Zentro okupazionala						
Hitzarmena	205	1.420.548	215	1.806.200	5	27





GASTU GARBIA, GUZTIRA	882	6.270.032	923	7.311.835	5	17
ZLPak, GUZTIRA	78	1.964.613	197	4.352.668	153	122
PAGNAren gastua, GUZTIRA, GM baliabideetan	-	8.234.645	-	11.664.503	-	42

*2018an sortutako larrialdietako plaza barne

** Etxebizitza laguntzaduneko bi plazarako laguntzak barne.

Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabideen gastuari eta plaza erabilgarri buruz hau adierazi behar dugu:

a) Gaixotasun mentala duten pertsonentzako PAGNAren gastua, ZLPak barne, ehuneko 42 hazi da: 2014an 8,23 milioi izatetik 2019an 11,66 milioi izatera igaro da. Alabaina, kontratu eta hitzarmenetako gastua ehuneko 17 igo den bitartean, ZLPetako gastua ehuneko 122 handitu da.

b) Plaza itunduak ehuneko bost gehitu dira, 2019an 923 plaza izateraino, eta ZLPa duten plazak ehuneko 153 gehitu dira, 2019an 197 plaza izateraino.

c) GMELetan, gastua eta plaza itunduen kopurua ez dira aldatu aztertutako epean; ZLPetako gastua, aldiz, ehuneko 75 igo da 2014az geroztik. 2014an GMELetako gastuaren ia erdia ZLPengatikoko gastua zen; 2019an, ZLPengatikoko gastua guztizko gastuaren ehuneko 71raino handitu da.

d) Zaintzapeko etxebizitzetako plaza itunduak 22 izan dira 2015etik, kopurua aldatu gabe, baina haien gastua ehuneko 22 igo da. Etxebizitza horietako ZLP plazen kopurua, ordea, ehuneko 450 igo da, eta horien gastua ehuneko 611.

e) Etxebizitza gainbegiratuetakoko plazak 2018an lau izatetik 2019an zortzi izatera pasatu dira, eta haien gastua ehuneko 247 handitu da. Gehikuntza horren arrazoia da 2018an kontratu berri bat adjudikatu izana baliabide horien kudeaketarako, modulua- ren prezioa eguneratuz desgaitasunaren arretarako zentroetako hitzarmen kolektiboaren arabera; horrek zerbitzuaren kalitatearen hobekuntza ekarri du, bai zerbitzuaren intentsitatea bai zerbitzua ematen duten langileen lan baldintzak hobetu direlako.

f) Etxebizitza gainbegiratuetakoko ZLP plazak nabarmen ugartu dira; 2014an ez zegoen ZLPrik etxebizitza gainbegiratueta, 2015ean eta 2016an lau plaza baimendu ziren, 2017an eta 2018an baziren 19 plaza, eta 2019an 39.

Itxaron zerrendak

- Plaza erabilgarrien konparazioa egiten badugu baliabide soziosanitarioen arabera eta baliabide horietako itxaron zerrenden arabera, egiazta dezakegu baliabide komunitarioen eskariaren gehikuntza: etxe-egoitzena, zaintzapeko etxebizitza eta gainbegiratuena, eta etxebizitza laguntzadunena. Hala ere, ez da plazen gehikuntza nabaririk izan baliabide horietan.





Eskari horri aurre egiteko, nabarmen gehitu dira ZLPa duten plazak.

Baliabide mota	2014		2019		2019/2014 aldea (%)	
	Plazak	IZ	Plazak	IZ	Plazak	IZ
GMELa	82	33	82	21	0	-36
Etxe-egoitza	25	9	26	29	0	222
EPSZ eguneko zentroa	135	11	135	10	0	-9
Zaintzapeko etxebizitza	18	16	22	51	22	219
Etxebizitza gainbegiratua	4	3	8	38	100	1.167
Etxebizitza laguntzaduna	4	3	5	7	25	133
EHSOZ	221	12	221	36	0	200

Plazen ratioak 100.000 biztanleko

Hauek dira plazen ratioak 100.000 biztanleko, baliabide horietako bakoitzean:

Baliabide mota	Ratioa (ENE)	Ratioak 100.000 biztanleko					
		2014	2015	2016	2017	2018	2019
> 17 urteko populazioa		528.073	527.448	527.473	529.620	533.198	545.948
GMELa ⁺ etxe-egoitza	20	20	20	20	20	20	20
EPSZ eguneko zentroa	20	26	26	26	25	25	25
EPSZ programak	20	30	30	32	32	32	31
Zaintzapeko etxebiz.	Ez dago eskuragarri	3	4	4	4	4	4
Etxebizitza gainbegiratua	Ez dago eskuragarri	1	1	1	1	1	2
Etxebizitza laguntzaduna	Ez dago eskuragarri	1	1	1	1	1	1
EHSOZ	Ez dago eskuragarri	42	42	42	42	41	40

ENEk osasun mentaleko sistemen baliabideei buruz 2011. urtean egindako txostenak 100.000 biztanleko 20 plaza izatea ezartzen du kalitate-irizpidetzat EPSZ plazetarako eta egoitza txikietarako (GMELa eta etxe-egoitza). Nafarroan, GMELeke eta etxe-egoitzako plazen ratioak ENEk adierazitako kalitate-estandarra betetzen du.

2014-2019 bitartean, EPSZko ratioa 25 plazatik gorakoa izan da EPSZ eguneko zentroan eta 30 plazatik gorakoan EPSZ programetan. Guztira, EPSZko ratioa 100.000 biztanleko 55 plazatik gorakoa da; ratio hori ENERen estandarra baino askoz handiagoa da.

Azken batean, PAGNAREN GMEL, etxe-egoitza, EPSZ eta EHSOZ baliabideetan itundutako/kontratututako plazek ez dute gorabehera nabarmenik izan 2014-2019 al-dian. Gehikuntza, zenbaki absolututan, zaintzapeko etxebizitzetan eta etxebizitza gainbegiratuetan izan da; baliabide horietan pazienteak komunitatean integratuago egoten da.





Aldaketa adierazgarriena ZLPetan gertatu da (prestazio horiek salbuespenekoak izan behar dute), zerbitzua eskuratzeko nahiko baliabiderik ez eta haren ordeztasun prestazio ekonomikoa ematen den baliabide guztietan. Hala, ZLPa duten GMEL plazak 2014an 74 izan ziren eta 2019an 128, zaintzapeko etxebizitzetakoak 2014an lau eta 2019an 22, eta etxebizitza gainbegiratuetoakoak 2014an bat ere ez eta 2019an 39.

Nafarroan, kalitate-estandarrek betetzen dira GMEL eta EPSZ baliabideetan, eta ez dugu ebaluazio irizpiderik gainerako laguntza baliabideetarako; hala ere, ondorioztatzen ahal dugu azken horiek urriak direla, baliabide horietara iristeko itxaron zerrendei eta ZLPen gehikuntzari erreparatuta.

Zentro okupazionalak

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio ez-bermatu gisa aurreikusten du gaixotasun mentala duten pertsonentzako ZO zerbitzua. Zerbitzu hori emateko, PAG-NAK urtero hitzarmena sinatzen du ekonomia sozialeko enpresa batekin. Hitzarmen horrek arautzen du gaixotasun mental larriaren ondorioz desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza programak egin eta garatzeko dirulaguntza.

Hona hemen dirulaguntzaren zenbatekoa 2014-2019 aldian, eta zenbat plaza izan dituzten lau ZOek (hiru Iruñean daude eta bat Tuteran):

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2019/14 aldea (%)
Zenbatekoa	1.420.548	1.734.240	1.734.200	1.734.200	1.734.200	1.806.200	27
ZO plazak Iruña	175	185	185	185	185	185	6
ZO plazak Tuteran	30	30	30	30	30	30	-
ZO plazak guztira	205	215	215	215	215	215	5

Dirulaguntza ehuneko 22 handitu zen 2015. urtean 2014ko aldean, gero aldatu gabe egon zen 2019. urtera arte, eta orduan ehuneko lau handitu zen 2018ko aldean; hain zuzen ere 1,8 milioi eurora iritsi zen.

Zentro okupazionalak plazak ez dute gorabeherarik izan 2015-2019 bitartean, eta 215 izan dira; azpiko taulan ageri dira 100.000 biztanleko plaza ratioa eta okupazioaren ehunekoak:

	ZO plazak 100.000 biztanleko					
	2014	2015	2016	2017	2018	2019
17-64 urteko populazioa	408.858	406.032	404.457	405.107	406.762	417.557
ZO plazen kop.	205	215	215	215	215	215
ZO ratioa	50,14	52,95	53,15	53,07	52,86	51,49
Betetako plazak	205	212	212	211	209	195
Okupazioa (%)	100	98	99	98	99	91
Itxaron zerrendako pertsonak	34	47	11	10	0	0

2018an eta 2019an ez da ZOko plaza hartzeko itxaron zerrendarik izan. Aurreko urteetan bai, itxaron zerrenda egon da nahiz eta plaza hutsak izan ZOetan, eta hori sarrerako prozeduraren ondorio izan da, funtsean, desfasea gertatzen baitzen plaza ba-





teko bajaren eta langile berri baten sarreraren artean; 2020ra arte OMZen bitartez sartzen zen ZOetan, eta batzorde batek baloratzen zuen eskaera, Eskubide Sozialetako Departamentuko, NOMSeko eta itunpeko enpresaren bina ordezkari osatua.

2020tik aurrera Eskubide Sozialetako Departamentuko profesionalak egiten dute ZOan sartzeko egokitasunaren balorazioa, pertsonak ZOan sartu arte itxaron behar duen denbora laburtzeko (< 10 egun). Halaber, osasun arloko profesionalak, Eskubide Sozialetako Departamentuak eta entitateak osatutako batzorde bat langilearen jarraipenaz arduratzen da.

Enplegu zentro bereziak

EZBen helburu nagusia da produkzio lana egitea, ordaindutako enplegua eta doitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioa bermatuz desgaitasuna duten EZBetako langileei.

NEZek, desgaitasuna duten pertsonak laneratu daitezzen sustatzearren, gaixotasun mentala duten pertsonak tartean, EZBei dirulaguntzak ematen dizkie desgaitasuna duten pertsonen soldaten kostua finantzatzeko, eta urtean 1.200 euroko dirulaguntza ematen die kontratatutako laguntzaileentzat.

2014-2019 aldian, dirulaguntza horren zenbatekoa, finantzatutako langileen kopurua eta laguntza unitateetako onuradunen kopurua honako hauek izan dira:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/14
Soldaten kosturako dirulaguntza	388.305	521.555	591.605	672.631	620.665	777.015	100
Desgaitasuna duten langileak, guztira	103	117	116	115	116	117	14
Gaixotasun mentala duten langileen kop.	49	67	66	69	65	67	37
Laguntza unitateetarako dirulag.	47.209	57.807	67.149	75.548	73.778	73.183	55
Langile onuradunen kop.	49	49	57	68	70	70	43
Dirulaguntzak, guztira	435.514	579.362	658.754	748.179	694.443	850.198	95

Soldaten kostuari aurre egiteko dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa desgaitasuna duten langile guztiei dagokie, gaixotasun mentala duten langileak barne.

Gaixotasun mentalagatik desgaitasuna duten langile diruz lagunduen kopurua ehuneko 37 handitu zen 2014tik 2015era, eta 65-69 langile bitartean egon da 2015-2019 aldian. Hala ere, soldaten kostuari aurre egiteko dirulaguntza ehuneko 100 handitu da 2019. urtean 2014ko aldean, lanbide arteko gutxieneko soldataren aldakuntzen ondorioz, LGS hori dirulaguntzarako erreferentziako datua baita.

Laguntza unitateetako langile onuradunak 70 izan ziren 2018an eta 2019an; haien kopurua ehuneko 43 hazi zen 2014az geroztik..





IV.2.3. Sistemaren eskuragarritasuna

Azpihelburua	Auditoretzako irizpideak
2.3. Hobetu al da sistemaren eskuragarritasuna?	Osasun mentaleko arreta espezializaturako itxaron zerrendetako paziente kopuruaren murrizketa. Itxaron zerrendaren eta itxaronaldiaren murrizketaren ehunekoa.
	Bermeei buruzko Legearen arabera egindako lehen kontsultak.
	Tratatu gabeko nahasmendu psikotikoaren iraupena, hilabetetan

• Osasun mentaleko arreta espezializaturako itxaron zerrendetako paziente kopuruaren murrizketak osasun mentaleko sistemaren irisgarritasun egokia erakusten ditu.

Honako taula honetan jaso da itxaron zerrenda, urte bakoitzeko abenduaren 31n, OMZren arabera:

Baliabide komunitarioa	2016	Batez besteko itxaronaldia, egunetan 2016	2017	Batez besteko itxaronaldia, egunetan 2017	2018	Batez besteko itxaronaldia, egunetan 2018	2019	Batez besteko itxaronaldia, egunetan 2019
Burlatako OMZ	46	20	60	27	52	22	74	31
Donibaneko OMZ	75	30	85	25	54	33	94	31
Arrosadiko OMZ	65	23	98	42	74	46	57	28
Antsoaingo OMZ	69	41	44	22	20	19	49	27
Buztintzuriko OMZ	29	32	34	25	23	27	62	27
Ermitagañako OMZ	27	19	37	23	27	19	44	27
Alde Zaharreko OMZ	23	11	38	18	31	29	59	24
Tuterako OMZ	119	30	73	24	45	47	50	24
Tafallako OMZ	17	14	52	28	41	29	32	23
Lizarrako OMZ	48	27	73	34	49	23	46	22
Haur eta Gazteen OMZ	84	23	87	26	107	24	176	34
Tuterako HG	0	-	45	61	29	38	17	26
TTP	0	-	0	-	0	-	39	32
Guztira	612	24	726	29	552	29	799	28

Itxaron zerrendak aldaketak izan ditu gure azterlaneko urteetan, gora eta behera eginez ehuneko handietan. Kontuan izan behar dugu datu horiek data finko batekoak direla eta itxaron zerrendak gorabehera ez hain adierazgarriak izan ditzakeela urtean zehar.

2018an, oinarrizko osasun laguntzan psikologiako agendak irekitzearen ondorioz, OMZetako itxaron zerrendetako pertsonen kopurua ehuneko 24 jaitsi zen 2017ko abendukoaren aldean. 2019an, itxaron zerrendako pazienteak ehuneko 45 gehiago izan ziren 2018an baino; eskariaren gehikuntzak, psikiatra eta psikologo-uen urritasunarekin batera, agenda guztiak betetzea galarazi zuen.





Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen arabera, larrialdirik gabeko arreta espezializatu programa-tua behar duten pazienteei gehienez ere 30 egun balioduneko epean emanen zaie arreta, medikuak eskaera egiten duenetik hasita. Oro har, osasun mentaleko zen-troek gehieneko epe hori betetzen dute abenduaren 31n, batez besteko itxaronaldia aintzat hartuz.

• Gure txostena egin bitartean honako hobekuntza hauek ikusi ditugu sistemaren eskuragarritasunean:

a) LGP programak, IV.1.3 atalean aipatu dugun bezala, psikosi larria duten 15-65 urte arteko pertsonak artatzen ditu; hau da, pertsona gehiagori ematen die sarbidea, ezarritako adierazle orokorretan seinalatutakoa baino adin tarte zabalagoa hartzen baitu, eta Nafarroako Foru Komunitate osoko biztanleriari ematen dio arreta.

Gainera, programaren ezarpenean aurrera egin ahala aurreikusten da osasun mentaleko baliabide guztietatik izanen dela sarbidea, batez ere Oinarrizko Osasun Laguntzatik, baliabide sanitarioetarako lehen mailako sarbidea den aldetik.

DUP adierazleak (tratatu gabeko nahasmendu psikotikoaren iraupena, hilabete-tan) esaten digu zenbat denbora igaro den sintoma psikotikoak agertu direnetik tratamendua hasi arte. 2019an indize hori 8,75 hilabetekoa da. Programaren era-bateko hedapenak eta Oinarrizko Osasun Laguntzatik sarbidea izateak adierazle hori beheratuko dute eta programarako sarbidea hobetuko.

b) Narriadura Kognitiboko Unitateak (NKU) demenzia hasiera duten pazienteak artatzen ditu modu ambulatorioan, Neurologia eta Geriatria zerbitzuetatik deribatuak. 2018ko maiatzean Tuterako Eguneako Ospitaleari lotutako NKUa ireki zenetik, 28 pla-zarekin, hobetu egin da baliabide horretarako sarbidea, batetik baliabideko plazen ko-puruaren gehikuntzarengatik eta bestetik beste osasun barruti batean kokatuta egotea-gatik.

Gainera, 2018. urteko bigarren seihilekoan pilotaje bat hasi da oinarrizko osa-sun laguntzako zenbait zentrotan, pazienteak zuzenean deribatzekeko estimulazio kognitiboko tailerretara. Helburu nagusia da irisgarritasun eta ekitate handiagoa izatea zerbitzuaren prestazioan. 2019az geroztik, oinarrizko osasun laguntzako zentro guztiek zuzenean bideratzen ahal dituzte pazienteak tailer horietara.

c) 2019an Gizarte Zerbitzuen Zorroa aldatu egin zen martxoaren 20ko 30/2019 Foru Dekretuaren bidez, eta hala nabarmen hobetu da PAGNaren baliabideen irisgarritasuna gaixotasun mental larria dutenentzat, bi arrazoirengatik: gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun aitortua izatea eskatu ordez egokitasun txosten bat eskatzen delako, profesio-nal eskudun batek egina, normalean OMZko batek; eta nahasmendu mental larri-gatik baliabideak erabili ahal izateko aukera jada ez delako 18-65 urte arteko pertso-netara mugatzen.





• Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak, 2018. urtean, gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabideetako batzuen onuradunen tasa aztertu du 1.000 biztanleko, gizarte zerbitzuen barrutien arabera. Hona haren ondorioak:

	Lizarra	Ipar-ekialdea	Ipar-mende-baldea	Iruña	Tafalla	Tutera
GMELa	0,11	0,1	0,48	0,36	0,16	0,14
ZLPak	0,17	0,1	0,44	0,53	0,25	0,21
EPSZ	0,46	0	0,34	0,2	0	0,35
EHSOZ	0,14	0,05	0,2	0,42	0,2	0,2

GMEL egoitzetako onuradunen tasarik handiena Iruñean eta Elizondon dute, egoitzak kokatuta dauden oinarrizko gizarte zerbitzuen barrutietan.

Beste horrenbeste gertatzen da EPSZ baliabidearekin: 1.000 biztanleko onuradunen tasa handiagoa da zerbitzuak kokatuta dauden aldeetan, eta, izan ere, halako baliabiderik ez dagoen oinarrizko gizarte zerbitzuen esparruan ez dago pertsona onuradunik.

EHSOZ baliabidearen onuradunen tasarik handiena Iruñean dago.

Azterketa honek berresten duenez, baliabideen kokapenak irisgarritasunari eragiten dio, eta gaixotasun mentala duen pazienteari baliabide egokiena esleitzeko orduan eragina izan dezake, pazientearen bizilekua edo baliabideen kokalekua aintzat hartzen bada, beste baliabide egokiago edo komunitario bat baztertuz.

Laburbilduz, 2014-2019 bitartean baliabideak ugaritu egin dira, hobekuntzak egin dira osasun mentaleko zerbitzuetan, eta horrenbestez sistemaren eskuragarritasuna hobetu da; hala ere, OMZetako itxaron zerrendek —sistemarako sarbide egokiaren adierazleek— gorabehera handiak izan dituzte aldi horretan, eta gainditu egin dute 30 eguneko epea, Bermeei buruzko Legean arreta espezializaturako ezarritakoa.





IV.3. Amaierako konklusioa eta gomendioak

Nafarroan, nahasmendu mentala duten pertsonen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren laguntza baliabideen bitartez ematen zaie arreta. Baliabideok honela daude osatuta: baliabide komunitario eta espezializatuak, eta Pertsonen Autonomia-rako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren baliabide sozialak eta soziosanitarioak.

2019an, osasun mentaleko gastua 58 milioikoa izan da, eta gastu horretatik langile-ria gastuak ehuneko 54 izan dira. Langileak 717 dira 2019ko abenduaren 31n; aldi baterako langileak ehuneko 53 dira.

Nafarroako Foru Komunitatean osasun mentala sustatzeko, nahasmendu mentalei aurrea hartzeko eta nahasmendu mentala duten pertsonen arreta emateko jartzen diren baliabideen kudeaketari buruz egindako azterketatik honako konklusio hauek atera ditugu:

- Egindako sustapen eta prebentzio jarduerak biztanle talde espezifiko eta txikiei zuzendu zaizkie. Ez da osasun mentaleko sustapen eta prebentzio planik izan, zerbitzu guztiak lanean jarri eta koordinatzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko.

- Osasun mentaleko zentroetan, profesionalen ratioek betetzen dituzte ezarritako irizpideak, baina ez dugu nahiko frogarik lortu baliabide horiek behar adinakoak direla ondorioztatzeko, badaudelako pazienteak itxaron zerrendetan eta haien kopuruak gorabehera nabarmenak izaten dituelako.

- Tarteko eta ospitaleko baliabideak, oro har, aski dira nahasmendu mentala duten pertsonak ospitaleraturik artatzeko. Izan ere, haien okupazio indizeen arabera, paziente gehiago ere artatzen ahal lituzkete, eta 100.000 biztanleko plazen ratioei dagokienez ezarritako kalitate irizpideak gainditzen dituzte.

- Desberdintasun garrantzitsuak daude nahasmendu mentala duten pazienteentzako arreta zerbitzuen azpiegituren artean. Instalazio berriak sustatu behar dira NOZeko ospitalizazio unitateentzat eta eguneko ospitaleentzat, instalazio egokiagoak izan ditza-ten pazienteak artatzeko.

- Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabide soziosanitarioak ez dira aski; plazen defizit nabarmena dago, eta zerbitzuari loturiko prestazioak emanez berdintzen ari da.

- Azkenik, 2014-2019 bitartean, baliabideen eskuragarritasuna areagotu egin da, baina hobekuntzak egin behar dira pazienteei arreta emateko itxaronaldiak laburtzeko eta zerbitzuen kokapena dela-eta gerta litezkeen aukera desberdintasunak saihesteko.

Ateratako konklusioak kontuan hartuta, ondoren aztertutako kudeaketa hobetzen la-
gun dezaketen gomendioak azaltzen ditugu:





A) Osasun mentalaren sustapenari eta prebentzioari dagokienez

- *Osasun mentala sustatzeko eta nahasmendu mentalei aurrea hartzeko plan bat egitea, osasun mentaleko zerbitzu sanitario eta sozial guztiak bildu eta koordinatuko dituen.*
- *Nafarroako biztanleria osoari zuzendutako sustapen eta prebentzio jarduerak bultzatu eta koordinatzea osasun mentaleko zentroen bitartez, nahasmendu mentala duten pertsonentzat lehen mailako sarrera eta laguntza zentroak diren aldetik.*
- *Nafarroako aurrekontu orokorretan zehaztea zer baliabide jarriko diren osasun mentala sustatzeko, nahasmendu mentalei aurrea hartzeko eta estigma ezabatzeko (osasun mentaleko programa eta plan estrategikoetan ezarritako helburuak).*
- *Suizidioaren prebentziorako plana egitea.*
- *Jokaera suizidari eta horren prebentzioari buruzko zabalkunde eta sentikortze kanpainak egitea, biztanle guztiei eta talde espezifikoei zuzenduak.*
- *Osasungintzako, oinarritzko osasun laguntzako eta arreta espezializatuko langileei prestakuntza ematen jarraitzea jokaera suizidaren prebentzioari eta detekzioari buruz eta horren jarraipenari, arretari eta esku-hartzeari buruz.*
- *Hezkuntzako, gizarte zerbitzuetako eta babes zibileko langileei eta arrisku taldeekin lan egiten dutenei behar duten prestakuntza ematea balizko jokaera suizidak goiz detektatzeko eta halakoei modu egokian aurre egiteko.*
- *Lehen Gertakari Psikitikoen programa (LGP) progresiboki ezartzen jarraitzea, eta lehen mailako laguntza den Oinarritzko Osasun Laguntzaren bidez halako kasuak osasun sisteman sar daitezten sustatzea, detekzio goiztiarra eta tratatu gabeko psikosiaren batez besteko iraupenaren (DUP) murrizketa helburu.*
- *Psikosiaren prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako prestakuntza programak garatzea, herritarrei eta osasungintzako, hezkuntzako eta zerbitzuetako langileei zuzenduak, nahasmendu mental horiei buruzko ezagutza orokorra hobetu eta esku-hartze goiztiarra errazteko.*

B) Nahasmendu mentala duten pertsonentzako arretari dagokionez:

- *Nafarroako Osasun Mentalaren Sareko laguntza zerbitzu eta baliabideak, horien jarduera eta okupazioa aztertzea, eraginkortasunez erabil daitezten eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako arretarik onena berma dadin.*
- *Adikzio Nahasmenduetarako Eguneko Ospitalearen eta komunitate terapeutikoen okupazio indize handiak aztertzea, bai eta baliabide horien zain dauden pazienteen kopurua ere, plazak gehitu behar ote diren jakiteko.*
- *Ospitalizazio azpiegitura berria sustatzea NOZen, 2019-2023 aldirako Plan Estrategikoan ezarritako helburua lortzeko.*





- *Eguneko ospitaleen instalazioak hobetu eta egokitzeko aukera aztertzea, eta, behar izanez gero, zerbitzu horietarako azpiegitura berria sustatzea.*
- *Baliabide soziosanitarioen eskaintza handitzea; gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabideetan behar diren plazak itundu edo kontratatzea, eta baliabide nahikorik ezean zerbitzuak eskuratzeko ZLPen banaketa mugatzea, izatez salbuespenezko prestazioak baitira.*
- *Plaza gehiago jartzea eredu komunitarioagoa duten baliabideetan: zaintzapeko etxebizitzak, etxebizitza gainbegiratuak eta etxebizitza laguntzadunak. Helburua da gaixotasun mental larria duten pertsonak egiaz gizarteratzea, autonomiarako eta bizi kalitaterako baldintza ahalik eta onenekin.*
- *PAGNAk bere gain hartzea GMEL arretako eta San Frantzisko Xabierkoa zentroko plazen kudeaketa, haien definizio soziosanitarioa aintzat hartuta, eta baliabide hori eremu komunitarioago batean kokatzea.*
- *Gaixotasun mentala duten pertsonak beren beharren arabera laneratzeko neurriak sustatzea, jarduera okupazionaletik eta enplegu babestutik ohiko lan araubidera igarotzeko bidea erraztuko dutenak; ZOak eta EZBak sor daitezten eta gaixotasun mentala duten pertsonen horietan parte har dezaten sustatzea.*
- *Sistemaren irisgarritasuna hobetzea, itxaronaldiak laburtuz, eta araudiak bermatzen duen gehieneko itxaronaldia ez gainditzea pazienteari arreta eman aurretik.*
- *Baliabide premiak aztertzea osasun barrutiak eta gizarte zerbitzuen barrutiak banaka harturik, eta kokalekuak baliabideen irisgarritasunari eragiten ote dion aztertzea; baiezkoan, baliabideak egokitzea, gerta litezkeen desberdintasun egoerak saihesteko.*

Txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga






ERANSKINAK





1. eranskina. Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren organigrama





2. eranskina. Aplikatzekoa de arau-esparrua

- 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzekoa.
- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25koa, Osasunari buruzkoa.
- 1680/1990 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Estatuko Administrazioak osasun-laguntzaren arloan agindutako Gizarte Segurantzaren zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzekoa.
- 2273/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, enplegu-zentro berezien erregelamendua onartzen duena.
- 22/1985 Foru Legea, azaroaren 13koa, Nafarroako osasun eskualdeei buruzkoa.
- 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, osasunari buruzkoa (otsailaren 28ko 2/1994 Foru Legeak aldatzen du).
- Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duena.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 21/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Osasun Mentalari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Dekretua, abuztuaren 30koa; horren bidez Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onartzen da.
- 243/1985 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Nafarroako osasun laguntza espezializatua antolatzen duena; 37/1986 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, aurrekoa osatzen duena.
- 347/1993 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeari eta lanpostuak hornitzea arautzen duena (maiatzaren 29ko 35/2013 Foru Dekretuak aldatzen du).
- 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duena.
- 132/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Osasun Departamentuaren egitura organikoaren ezartzen duena.
- 171/2015 Foru Dekretua, irailaren 3koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen Estatutuak onesten dituena.
- 30/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen 69/2008 Foru Dekretua aldatzen duena.





3. eranskina. Espainian psikosian goiz esku hartzeko programak: adierazleak

25. taula.- Espainian psikosian goiz esku hartzeko Liburu Zurian aztertutako PGE programen adierazleak

	PAFIP	P3	IPPIR	PIENSA	UAT	HIPATYA	CRUPEP	PTPEP-LA RIBERA	PTPEP- CLINICOV	PTPEP- GANDIA	IBIZA	PAE-TPI
Adierazle orokorrak												
Programa bakoitzean urtean artatutako kasu berriak (azken hiru urteak: 2014-2016)	103/35	20	40/3 urte	15	17	100	141	19	112	18		360
Kasuak urtean, guztira (azken hiru urteak: 2014-2016)	197	59	120/3 urte	44	52	130	271	90	98	62		409
AHEMarekin (UHR) programan urtean artatutako pazienteak (batez beste azken hiru urteetan 2014-2016)	0	2	0	0	0	30	19	0	0	4	0	90
LGPekin programan urtean artatutako pazienteak (batez beste azken hiru urteetan 2014-2016)	38	18	30/3 urte	15	39	34	90	24	42	21	51	170 ⁽¹⁾
Urtean ezetsitako kasuak (batez beste azken hiru urteetan 2014-2016)		0	0		12	0	15			2	0	65
PGE programarako itxaron zerrenda (asteak)	0	0	0	2	12	0	0		2	0	0	-
KOORDINAZIOA (2016. urtea)												
Oinarrizko Osasun Laguntzatik bideratutako kasuak	1	10	0			1	3	11	6	2		102
Larrialdietatik bideratutako kasuak	27	2	20			4	12	9	15	2		29
Ospitalizazio Unitatetik bideratutako kasuak	0	3	20			29	25		17	7		143
Osasun Mentaleko unitate eta zentroetatik (OMU-HG)	7	3	0		8	0	7	4		4		106
Beste osasun zerbitzuetatik (eguneko ospitaleak) bideratutako kasuak	0	3	0			0	2	0	0	3	1	
Beste erakunde batzuetatik bideratutako kasuak (gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak, institutuak, lanbide-heziketako zentroak, fundazioak, GKEak)	0	1	0			0	0	0	0	0	0	29
Sektoreen arteko koordinaziorako kontaktuak/bilerak	0	4	0	5		12	4	2	0	0		-
Koordinaziorako kontaktuak/bilerak, zenbait mailatan	48 ⁽²⁾	0	0	48		4	12	12	0	0		-

⁽¹⁾ Programetan dauden gainerako pazienteak krisi-fasean daude; % 9,6 dira.

⁽²⁾ Barruko koordinaziorako bilera bat egiten da asteen; behar denean, mailen arteko koordinazioa lantzen da.





	PAFIP	P3	IPPIR	PI-ENSA	UAT	HIPATYA	CRUPEP	PTPEP-LARIBERA	PTPEP-CLINICOV	PTPEP-GANDIA	IBIZA	PAE-TPI
KONTSULTAK (2016. urtea)												
Kontsultak, guztira	1.577	838		2.182	2.516	1.800	2.909	138		814	854	
Medikua/pazientea kontsultak	8	12-16 ⁽³⁾	14	% 100		21	20	15		20	9	
Erizaina/pazientea kontsultak	10	7	12	⁽⁴⁾		21	8	15	8	12	8	
Psikohezkontzako saioak pazienteko	8	16		15		16	5	8	8	5		
Saio psikosozialak pazienteko	0	0		15		4	3	2	12	6		
Esku hartze familiarreko saioak	8	13	6	15	203	205	417	6	-	20		
Pazienteak etxean bisitatzeko saioak	0	0	0	0		0	0	0	1, 15ean behin	87		
BESTE ADIERAZLE BATZUK (2016. urtea)												
PGEko trebakuntza jaso duten profesionalak	15	2	4	300		15	24	18	12	6	20	
Osasun langileak trebatzeko mintegiak	2	0		20		16	19	1	4	3	2	
Batez besteko itxaronaldia (egunak) kasua bideratu denetik psikiatrarekin lehenengoz egon arte	2	1	2	21 ⁽⁵⁾	1	3	3	1	8	6	1	
Batez besteko aldia (egunak) psikiatrarekin lehenengoz egon denetik tratamendua hasi arte	0	0	2	21		0	1	0-7	15	0	0	15 ⁽⁶⁾
Urtean tratamendua utzi duten pazienteak	19	2		2	6	1	4	2	10	4		62
Programa hasi denetik birritan sartu direnak	26	0	4		7	2	5	6		5		
Berriz ere bere sartu direnak, beren borondatez / borondatearen kontra		0				2 vs 0	4 vs 21	3 vs 3		3 vs 2		
Larrialdietako bisitak	1.7±2.2	3		4	2	2		% 44 hilabete baino gutxiago		4		11,5
Tratatu gabeko psikosiaren batez besteko iraupena (DUP), hilabete-tan	12,3	7,3		0 ⁽⁷⁾	12 ⁽⁸⁾	2	6,7	% 22 6 hilabete baino gehiago		3		
Suizidioak	7	0		0	0	0	0	0	3	0	0	

⁽³⁾ 12 psikiatrarekin, 16 psikologoarekin

⁽⁴⁾ Beharritan arabera, osasun-azterketarako eta medikazio-azterketarako

⁽⁵⁾ Mailaren garapenaren arabera; beraz, ikasturtearen arabera. Taldean abian bada, 3 bat aste. Gehienez 4 hilabete itxaron behar izaten da, kontuan edukita oporraldiak daudela.

⁽⁶⁾ Pazienteen % 92

⁽⁷⁾ Programaren barruan ez da bildu datu hau. Psikosi goiztiarrari buruzko azterketarekin lotuta dago.

⁽⁸⁾ Pazienteen % 79





4. eranskina. Jardueraren bilakaera osasun mentaleko zentroyen arabera⁹

Kontsultak OMZen arabera

OMZ	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/18
Antsoaingo OMZ	15.811	19.200	19.460	19.471	17.913	15.685	-12
Tuterako OMZ	11.595	13.819	14.443	13.661	13.909	14.794	6
Buztintzuriko OMZ	12.271	14.114	16.001	15.925	15.885	14.691	-8
Burlatako OMZ	17.846	17.548	16.496	15.576	14.102	14.358	2
Donibaneako OMZ	11.486	11.953	14.108	14.067	13.589	13.793	2
Arrosadiko OMZ	11.798	11.858	11.244	11.045	12.011	12.056	0
Ermitagañako OMZ	10.441	10.918	11.857	11.985	11.417	11.924	4
Alde Zaharreko OMZ	9.662	10.177	9.817	9.735	10.049	9.764	-3
Lizarrako OMZ	10.536	10.408	10.806	10.719	10.345	9.709	-6
Tafallako OMZ	5.477	5.690	5.714	5.643	5.562	5.788	4
Guztira, oro har	116.923	125.685	129.946	127.827	124.782	122.562	-2

Pazientek OMZen arabera

Etiquetas de fila	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/18
Tuterako OMZ	2.364	2.976	3.036	2.983	3.132	3.337	7
Donibaneako OMZ	1.577	1.819	1.962	2.177	2.441	2.737	12
Antsoaingo OMZ	1.870	2.343	2.354	2.499	2.446	2.465	1
Burlatako OMZ	2.105	2.364	2.488	2.323	2.434	2.453	1
Arrosadiko OMZ	1.356	1.874	1.889	1.994	2.318	2.362	2
Buztintzuriko OMZ	1.322	1.583	1.683	1.793	2.079	2.220	7
Ermitagañako OMZ	1.477	2.365	2.491	2.424	2.125	2.191	3
Lizarrako OMZ	1.450	1.741	1.799	1.890	1.990	2.034	2
Alde Zaharreko OMZ	1.489	1.678	1.663	1.609	1.711	1.769	3
Tafallako OMZ	1.186	1.269	1.356	1.410	1.552	1.550	0
Guztira, oro har	16.196	20.012	20.721	21.102	22.228	23.118	4

Kontsultak pazienteko, batez beste

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Buztintzuriko OMZ	9,3	8,9	9,5	8,9	7,6	6,6
Antsoaingo OMZ	8,5	8,2	8,3	7,8	7,3	6,4
Burlatako OMZ	8,5	7,4	6,6	6,7	5,8	5,9
Alde Zaharreko OMZ	6,5	6,1	5,9	6,1	5,9	5,5
Ermitagañako OMZ	7,1	4,6	4,8	4,9	5,4	5,4
Arrosadiko OMZ	8,7	6,3	6,0	5,5	5,2	5,1
Donibaneako OMZ	7,3	6,6	7,2	6,5	5,6	5,0
Lizarrako OMZ	7,3	6,0	6,0	5,7	5,2	4,8
Tuterako OMZ	4,9	4,6	4,8	4,6	4,4	4,4
Tafallako OMZ	4,6	4,5	4,2	4,0	3,6	3,7
Guztira, oro har	7,2	6,3	6,3	6,1	5,6	5,3

⁹ Lauki honetan ez dira ageri OMZ-HG zentroko pazienteen eta kontsulten inguruko datuak, ez LGPeke 2017az gerokoak, ez TTPko 2018az gerokoak.



**Jarduera nahasmendu mentaleko programako****Kontsultak**

Programak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldaketa- ren % 19/18
Nahasmendu mental arrunta (NMA)	29.504	36.757	41.178	44.401	46.408	46.736	1
Nahasmendu mental larria (NML)	50.197	41.923	42.819	43.438	38.726	37.822	-2
Adikzio nahasmenduak (AN)	24.006	24.646	26.532	26.679	25.032	23.051	-8
Geroratuta / Sailkatu gabe	11.172	16.755	13.423	6.490	7.226	7.575	5
Haurrak eta gazteak (HG)	2.044	1.966	2.111	2.323	2.608	2.452	-6
Psikogieria (PSG)	-	2.246	2.127	2.382	2.246	2.156	-4
Ez da behar tratamendu-programarik	-	1.392	1.756	2.114	2.537	2.770	9
Guztira, oro har	116.923	125.685	129.946	127.827	124.783	122.562	-2

Pazienteak

Programak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/18
Nahasmendu mental arrunta (NMA)	6.752	8.058	8.914	9.825	10.759	11.351	6
Nahasmendu mental larria (NML)	6.981	4.300	4.633	4.830	4.792	4.712	-2
Geroratuta / Sailkatu gabe		3.717	2.819	1.636	1.670	1.937	16
Adikzio nahasmenduak (AN)	1.835	1.704	1.790	1.905	1.898	1.893	0
Ez da behar tratamendurik		1.020	1.287	1.493	1.645	1.884	15
Psikogieria (PSG)		714	722	794	805	715	-11
Haurrak eta gazteak (HG)	628	499	556	619	659	626	-5
Guztira, oro har	16.196	20.012	20.721	21.102	22.228	23.118	4

Kontsultak pazienteko, batez beste, programen arabera

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Adikzio nahasmenduak (AN)	13	15	15	14	13	12
Nahasmendu mental larria (NML)	7	10	9	9	8	8
Nahasmendu mental arrunta (NMA)	4	5	5	4	4	4
Geroratuta / Sailkatu gabe	-	5	5	4	4	4
Haurrak eta gazteak (HG)	3	4	4	4	4	4
Psikogieria (PSG)	-	3	3	3	3	3
Ez da behar tratamendu-programarik	-	1	1	1	2	2
Guztira	7	6	6	6	6	5





5. eranskina. Osasun mentaleko programen pisu erlatiboa OMZetan - 2019

	Tratam. mental arrunta (TMA)	Tratam. mental larria (TML)	Adikzio nahas-menduak (AN)	Psikogeriatria (PSG)	Haurrak eta gazteak (HG)	Geroratuta / Saikatu gabe	Ez da behar tratamendu-programarik
Tafallako OMZ	60	17	9	4	0	3	7
Antsoaingo OMZ	54	21	9	1	0	8	6
Burlatako OMZ	54	24	8	3	0	3	8
Ermitagañako OMZ	53	25	6	2	0	6	8
Arrosadiko OMZ	51	18	8	5	0	7	11
Donibaneko OMZ	50	18	8	4	1	4	15
Buztintxuriko OMZ	49	21	10	1	1	11	6
Tuterako OMZ	43	19	8	4	9	12	5
Alde Zaharreko OMZ	41	24	8	2	0	24	5
Lizarrako OMZ	39	21	9	3	13	6	9
Guztira, oro har	49	20	8	3	3	8	8





6. eranskina. Profesionalak osasun mentaleko zentroen arabera

Psikiatrank OMZen arabera

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Tuterako OMZ	5	5	5	5	5	5,2
Antsoaingo OMZ	4	4	4	4	4	4
Burlatako OMZ	3,5	3,5	3,5	3,5	4	4
Lizarrako OMZ	3	3	3	3	3	3,8
Donibaneko OMZ	3	3	3	3	3,6	3,6
Arrosadiko OMZ	3	3	3	3	3,4	3,2
Buztintxuriko OMZ	3	3	3	3	3	3
Alde Zaharreko OMZ	3	3	3	3	3	3
Ermitagañako OMZ	3	3	3	3	3	3
Tafallako OMZ	2	2	2	2	2	2
Guztira, oro har	32,5	32,5	32,5	32,5	34	34,8

Psikiatra/pazientea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Tafallako OMZ	593	635	678	705	776	775
Donibaneko OMZ	526	606	654	726	678	760
Buztintxuriko OMZ	441	528	561	598	693	740
Arrosadiko OMZ	452	625	630	665	682	738
Ermitagañako OMZ	492	788	830	808	708	730
Tuterako OMZ	473	595	607	597	626	642
Antsoaingo OMZ	468	586	589	625	612	616
Burlatako OMZ	601	675	711	664	609	613
Alde Zaharreko OMZ	496	559	554	536	570	590
Lizarrako OMZ	483	580	600	630	663	535
Guztira, oro har	498	616	638	649	654	664

Zonako psikiatra/biztanlea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Antsoaingo OMZ	11.327	11.241	11.194	11.195	11.272	11.423
Burlatako OMZ	18.134	18.102	18.148	18.220	16.027	16.172
Buztintxuriko OMZ	11.657	11.691	11.780	11.931	12.132	12.392
Alde Zaharreko OMZ	16.436	16.238	16.146	16.107	16.183	16.242
Ermitagañako OMZ	16.193	16.292	16.315	16.365	16.514	16.674
Lizarrako OMZ	21.000	20.899	21.857	20.786	20.784	16.510
Arrosadiko OMZ	19.100	19.255	19.411	19.733	17.643	19.212
Donibaneko OMZ	19.561	19.688	19.781	19.973	16.848	17.041
Tafallako OMZ	19.057	18.831	18.699	18.674	18.657	18.704
Tuterako OMZ	19.105	19.103	19.032	19.082	19.189	18.676
Guztira, oro har	17.116	17.098	17.192	17.169	16.528	16.334





Psikologoak OMZko

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Tuterako OMZ	2,5	2,5	2,5	3,5	2,5	2,8
Donibaneko OMZ	2	2	2	2	2,2	2,6
Antsoaingo OMZ	2	2	2	2	2	2
Burlatako OMZ	2	2	2	2	2	2
Buztintxuriko OMZ	2	2	2	2	2	2
Ermitagañako OMZ	2	2	2	2	2	2
Lizarrako OMZ	2	2	2	2	2	2
Arrosadiko OMZ	2	2	2	2	2	2
Tafallako OMZ	1	1	1	1	1,4	1,4
Alde Zaharreko OMZ	1	1	1	1	1	1
Guztira, oro har	18,5	18,5	18,5	19,5	19,1	19,8

Psikologoa/pazientea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Alde Zaharreko OMZ	1.489	1.678	1.663	1.609	1.711	1.769
Antsoaingo OMZ	935	1.172	1.177	1.250	1.223	1.233
Burlatako OMZ	1.053	1.182	1.244	1.162	1.217	1.227
Tuterako OMZ	946	1.190	1.214	852	1.253	1.192
Arrosadiko OMZ	678	937	945	997	1.159	1.181
Buztintxuriko OMZ	661	792	842	897	1.040	1.110
Tafallako OMZ	1.186	1.269	1.356	1.410	1.109	1.107
Ermitagañako OMZ	739	1.183	1.246	1.212	1.063	1.096
Donibaneko OMZ	789	910	981	1.089	1.110	1.053
Lizarrako OMZ	725	871	900	945	995	1.017
Guztira, oro har	875	1.082	1.120	1.082	1.164	1.168

Psikologoa/biztanlea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Antsoaingo OMZ	22.653	22.483	22.387	22.390	22.544	22.847
Burlatako OMZ	31.735	31.678	31.759	31.886	32.054	32.345
Buztintxuriko OMZ	17.486	17.536	17.671	17.897	18.199	18.588
Alde Zaharreko OMZ	49.307	48.715	48.437	48.321	48.549	48.725
Ermitagañako OMZ	24.289	24.439	24.473	24.547	24.771	25.012
Lizarrako OMZ	31.501	31.348	32.786	31.179	31.176	31.370
Arrosadiko OMZ	28.650	28.883	29.117	29.599	29.993	30.739
Donibaneko OMZ	29.342	29.532	29.671	29.960	27.569	23.596
Tafallako OMZ	38.113	37.662	37.397	37.348	26.652	26.719
Tuterako OMZ	38.210	38.206	38.064	27.260	38.378	34.683
Guztira, oro har	30.069	30.038	30.202	28.616	29.421	28.708





Erizaintzako langileak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Antsoingo OMZ	2	2	2	2	2	2
Burlatako OMZ	2	2	2	2	2	2
Buztintxuriko OMZ	2	2	2	2	2	2
Alde Zaharreko OMZ	2	2	2	2	2	2
Ermitagañako OMZ	2	2	2	2	2	2
Lizarrako OMZ	1	1	1	2	2	2
Arrosadiko OMZ	2	2	2	2	2	2
Donibaneko OMZ	2	2	2	2	2	2
Tuterako OMZ	2	2	2	2	2	2
Tafallako OMZ	1	1	1	1	1	1
Guztira, oro har	18	18	18	19	19	19

Erizaintza/pazientea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Tuterako OMZ	1.182	1.488	1.518	1.492	1.566	1.669
Tafallako OMZ	1.186	1.269	1.356	1.410	1.552	1.550
Donibaneko OMZ	789	910	981	1.089	1.221	1.369
Antsoingo OMZ	935	1.172	1.177	1.250	1.223	1.233
Burlatako OMZ	1.053	1.182	1.244	1.162	1.217	1.227
Arrosadiko OMZ	678	937	945	997	1.159	1.181
Buztintxuriko OMZ	661	792	842	897	1.040	1.110
Ermitagañako OMZ	739	1.183	1.246	1.212	1.063	1.096
Lizarrako OMZ	1.450	1.741	1.799	945	995	1.017
Alde Zaharreko OMZ	745	839	832	805	856	885
Guztira, oro har	900	1.112	1.151	1.111	1.170	1.217

Erizaintza/biztanlea ratioa

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Antsoingo OMZ	22.653	22.483	22.387	22.390	22.544	22.847
Burlatako OMZ	31.735	31.678	31.759	31.886	32.054	32.345
Buztintxuriko OMZ	17.486	17.536	17.671	17.897	18.199	18.588
Alde Zaharreko OMZ	24.654	24.358	24.219	24.161	24.275	24.363
Ermitagañako OMZ	24.289	24.439	24.473	24.547	24.771	25.012
Lizarrako OMZ	63.001	62.696	65.572	31.179	31.176	31.370
Arrosadiko OMZ	28.650	28.883	29.117	29.599	29.993	30.739
Donibaneko OMZ	29.342	29.532	29.671	29.960	30.326	30.675
Tafallako OMZ	38.113	37.662	37.397	37.348	37.313	37.407
Tuterako OMZ	47.763	47.757	47.580	47.705	47.973	48.557
Guztira, oro har	30.904	30.872	31.041	29.369	29.576	29.916





7. eranskina. Tarteko Baliabideen jardueraren bilakaera

EO / NKU: MOTA	2014	2015	2016	2017	2018	2019
OSPITALERATZEAK						
I. EO Pabiloi zuria	139	144	145	137	136	122
II. EO Irubide	119	166	161	169	173	161
5. EO Tutera	84	83	81	86	77	80
EO psikogeriatrikoa	94	87	114	113	106	91
Haur eta gazteen EOa	40	45	61	49	42	29
Zuria EO AN	79	86	82	76	88	84
NKU psikogeriatrikoa	211	209	249	209	250	216
Tuterako NKU	-	-	-	-	51	49
PAZIENTEAK						
I. EO Pabiloi zuria	140	156	149	143	141	123
II. EO Irubide	122	180	175	168	193	165
5. EO Tutera	75	76	76	73	65	84
EO psikogeriatrikoa	46	40	61	48	50	37
Haur eta gazteen EOa	89	87	114	115	110	112
Zuria EO AN	89	103	110	110	104	98
NKU psikogeriatrikoa	210	208	246	196	235	381
Tuterako NKU	-	-	-	-	51	134
ALTAK						
I. EO Pabiloi zuria	138	143	144	139	137	122
II. EO Irubide	118	163	157	161	173	154
5. EO Tutera	76	78	83	85	75	79
EO psikogeriatrikoa	41	46	55	48	41	29
Haur eta gazteen EOa	94	84	115	111	107	90
Zuria EO AN	72	82	82	71	87	80
NKU psikogeriatrikoa	92	240	250	232	170	201
Tuterako NKU	-	-	-	-	6	31
ENU	26	-	-	-	-	-
OKUPAZIO-INDIZEA (Egonaldiak / plazen kop.*egun baliodunak) %)						
I. EO Pabiloi zuria	90	99	92	90	89	79
II. EO Irubide	80	77	76	82	78	70
5. EO Tutera	69	65	59	67	70	64
EO psikogeriatrikoa	61	72	84	79	85	76
Haur eta gazteen EOa	65	65	67	64	60	65
Zuria EO AN	106	96	103	98	86	96
NKU psikogeriatrikoa	73	84	91	85	74	77
Tuterako NKU	-	-	-	-	63	64
TXANDAKATZE-INDIZEA (altak/plazak)						
I. EO Pabiloi zuria	7	7	7	7	7	6
II. EO Irubide	6	6	5	6	6	5
5. EO Tutera	8	8	8	9	8	8
EO psikogeriatrikoa	5	4	6	6	5	5
Haur eta gazteen EOa	3	4	5	4	4	2
Zuria EO AN	5	6	6	5	6	6
NKU psikogeriatrikoa	5	5	3	3	3	3
Tuterako NKU	-	-	-	-	2	2
EO: mota	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EGONALDIA, BATEZ BESTE (egunak)						
I. EO Pabiloi zuria	32	34	31	32	33	32
II. EO Irubide	34	35	35	36	34	32
5. EO Tutera	21	20	18	19	22	20
Haur eta gazteen EOa	52	43	32	38	43	66
EO psikogeriatrikoa	33	41	36	34	40	41
Zuria EO AN	50	42	46	48	36	42
NKU psikogeriatrikoa	27	29	26	29	21	25
Tuterako NKU	-	-	-	-	20	31





8. eranskina. Ospitale baliabideen jardueraren bilakaera

OPUetako JARDUERA	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/18	Aldea (%) 19/14
OKUPAZIO IND.								
OPU Helduak NO	90,2	86,4	90,9	87	90	87,6	3,45	-0,21
OPU HG NO	89,1	77,4	68,1	56,3	60,5	55,1	7,46	-32,10
Tuterako OPUa	54,6	58,9	57,1	58,8	62,7	55,8	6,63	14,81
<i>Guztira</i>	<i>85,1</i>	<i>82,0</i>	<i>84,9</i>	<i>81,1</i>	<i>84,3</i>	<i>81,1</i>	<i>-3,80</i>	<i>-4,68</i>
EGON., BATEZ B.								
OPU Helduak NO	20,4	19,6	19,2	19,7	19,6	21,3	8,67	4,26
OPU HG NO	28,3	23,1	27,7	24,9	25,2	30,9	22,62	9,19
Tuterako OPUa	8	9,4	9,5	10,4	10,7	10,5	-1,87	31,25
<i>Guztira</i>	<i>18,0</i>	<i>17,9</i>	<i>17,7</i>	<i>18,0</i>	<i>18,4</i>	<i>19,5</i>	<i>5,88</i>	<i>7,84</i>
EGONALDIK								
OPU Helduak NO	16.787	16.089	16.962	16.202	16.755	16.313	-2,64	-2,82
OPU HG NO	1.301	1.130	997	822	883	804	-8,95	-38,20
Tuterako OPUa	1.794	1.934	1.881	1.931	2.062	1.834	-11,06	2,23
<i>Guztira</i>	<i>19.882</i>	<i>19.153</i>	<i>19.840</i>	<i>18.955</i>	<i>19.700</i>	<i>18.951</i>	<i>-3,80</i>	<i>-4,68</i>
TXAND. INDIZEA								
OPU Helduak NO	16,4	16,1	17,4	16,1	16,7	15,0	-10,18	-8,49
OPU HG NO	11,3	12,3	9,0	8,3	8,8	6,5	-26,14	-42,22
Tuterako OPUa	24,6	22,8	22,1	20,6	21,4	19,4	-9,35	-21,00
<i>Guztira</i>	<i>17,2</i>	<i>16,7</i>	<i>17,5</i>	<i>16,5</i>	<i>16,8</i>	<i>15,2</i>	<i>-9,14</i>	<i>-11,62</i>
ALTAK								
OPU Helduak NO	836	819	885	833	834	770	-7,67	-7,89
OPU HG NO	45	49	36	38	43	31	-27,91	-31,11
Tuterako OPUa	221	205	199	185	195	173	-11,28	-21,72
<i>Guztira</i>	<i>1.102</i>	<i>1.073</i>	<i>1.120</i>	<i>1.056</i>	<i>1.072</i>	<i>974</i>	<i>-9,14</i>	<i>-11,62</i>

EU PROGRAMAK: JARDUERA	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/18	Aldea (%) 2019/14
OSPITALERATZEAK								
Eguneko ospitaleratzeak	52	44	39	54	55	53	-4	2
Asteko ospitaleratzeak	27	23	29	24	26	23	-12	-15
Ospitaleratzeak, guztira	28	27	27	34	27	26	-4	-7
EGONALDIK								
Eguneko ospitaleratzeak	4.745	5.383	3.548	3.736	5.138	4.698	-9	-1
Asteko ospitaleratzeak	4.003	4.093	3.746	4.100	4.025	3.699	-8	-8
Ospitaleratzeak, guztira	5.560	5.515	5.618	5.615	5.684	5.387	-5	-3
EGONALDIA, BATEZ BESTE								
Eguneko ospitaleratzeak	91,2	122,3	91	69	93	89	-4	-2
Asteko ospitaleratzeak	148,3	178	129,2	170,8	154,8	161	4	9
Ospitaleratzeak, guztira	198,6	204,2	208	165,1	211	207	-2	4
OKUPAZIO-INDIZEA								
Eguneko ospitaleratzeak	59,3	67,8	44,9	47,5	67,7	60	-11	1
Asteko ospitaleratzeak	91,4	93,4	85,3	93,6	91,9	85	-8	-7
Ospitaleratzeak, guztira	95,2	94,4	95,9	96,2	97,3	92	-5	-3
ALTAK								
Eguneko ospitaleratzeak	43	55	41	48	51	54	6	26
Asteko ospitaleratzeak	29	23	29	24	25	23	-8	-21
Ospitaleratzeak, guztira	26	25	28	32	26	27	4	4





9. eranskina. Baliabide soziosanitarioen deskripzioa

- GMEL: gaixotasun mental larria duten pertsonentzako arreta asistentziala

Prestazio hau bermatuta dago. Arreta-zerbitzu hau egoitza-establezimenduetan ematen da; helburua da onuradunei arreta integrala ematea beren oinarrizko beharriaz, beharrian terapeutikoak, errehabilitazio-beharriaz eta beharrian soziokulturalak asetzeko.

- Etxe-egoitza.

Prestazio hau bermatuta dago. Arreta-zerbitzu hau egoitza-establezimenduetan ematen den; helburuak honako hauek dira: onuradunei arreta integrala ematea, beren oinarrizko beharriaz asetzeko, autonomia pertsonala mantentzeko edo hobetzeko, eta gizarteratzea eta ingurunean parte hartzea sustatzea.

- Etxebizitza gainbegiratua.

Prestazio hau bermatuta dago. Arreta-zerbitzu hau komunitateko etxebizitzetan ematen da; helburuak honako hauek dira: onuradunei arreta integrala ematea, beren oinarrizko beharriaz asetzeko, autonomia pertsonala mantentzeko edo hobetzeko, eta gizarteratzea eta ingurunean parte hartzea sustatzea.

- Zaintzapeko etxebizitza / Etxebizitza funtzionala.

Prestazio hau bermatuta dago. Arreta-zerbitzu hau komunitateko etxebizitzetan ematen da; helburuak honako hauek dira: onuradunei arreta integrala ematea, beren oinarrizko beharriaz eta beharrian soziosanitarioak asetzeko, eta autonomia pertsonala mantentzeko edo hobetzeko, eta gizarteratzea eta ingurunean parte hartzea sustatzea.

- EHSOZ: esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua.

Prestazio bermatua, arreta anbulatoriokoa. Zerbitzu honek ingurune irekian ematen du arreta: gaitasunetan trebatu eta laguntza soziala, inklusio soziokomunitarioa sustatzeko, zaintzaileak babestuta.

- EPSZ: errehabilitazio psikosozialeko zerbitzua.

Errehabilitazio programa: prestazio bermatua, arreta anbulatoriokoa. Programa honek egunez ematen du arreta (beharrian terapeutikoak, errehabilitazioa eta laguntza), gizarteratzea sustatzeko eta ohiko ingurunean bizitzen laguntzeko, zaintzaileak babestuta.

Eguneko zentroa: prestazio hau bermatuta dago. Honelako zentroetan eguneko arreta ematen zaie pertsonari, beren oinarrizko beharriaz, beharrian terapeutikoak, errehabilitazio-beharriaz eta beharrian sozio-kulturalak asetzeko, bi helburu hauek xede hartuta: pertsona horiek beren ohiko ingurunean bizitzen jarraitzea eta beren zaintzaileak babestea.

- Etxebizitza laguntzaduna.





Prestazio hau ez dago bermatuta. Egoitza-arretako zerbitzu hau etxebizitza autonomoetan, etxebizitza komunitarioetan, tutoretzapeko apartamentuetan eta beste elkarbizitza-leku batzuetan ematen da; helburua da onuradunei arreta integrala ematea, beren oinarritzko beharrianak eta beharrian soziokulturalak asetzeko.

- ZO: zentro okupazionala.

Prestazio hau ez dago bermatuta. Eguneko arreta-zerbitzu hau berariazko establezimenduetan ematen da; helburua da jarduera okupazionalako eta garapen pertsonal eta sozialeko programak eskaintzea gaixotasun mental larria duten pertsonen, lan-merkatuan ezin sartu direnei (ez enplegu-zentro berezietan ez enpresa arruntetan), hain zuzen ere.





10. eranskina GMLen arretarako baliabide sozial eta soziosanitarioetako gastua

ITUNA/ZLPak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/14	Guztira 2014-2019
GMELa: NMLa duten pertsonentzako egoitza laguntzaduna								
Kontratua	1.968.717	1.970.918	1.968.256	1.805.027	1.963.020	1.969.987	0	11.645.924
Erabiltzaileen kuotak	556.173	523.369	514.845	449.424	545.722	591.339		3.180.872
Kontratuko gastu garbia	1.412.544	1.447.549	1.453.411	1.355.603	1.417.297	1.378.648		8.465.052
ZLPak	1.911.650	2.153.462	2.406.541	2.628.422	3.150.407	3.347.106	75	15.597.588
Guztira	3.324.194	3.601.011	3.859.952	3.984.025	4.567.704	4.725.754	42	24.062.640
Etxe-egoitza ⁽¹⁾								
Kontratua	565.254	567.498	567.698	470.916	652.467	622.814	10	3.446.647
Erabiltzaileen kuotak	122.966	128.050	142.323	93.815	146.156	140.108		773.417
Kontratuko gastu garbia	442.288	439.448	425.375	377.101	506.311	482.706		2.673.230
EPSZ. Errehabilitazio psikosozialeko zentroa								
EPSZ Kontratuko progra- mak	730.763	746.884	792.308	668.843	829.310	1.070.650	47	4.838.758
EPSZ Kontratuko eguneko zentroa	1.491.135	1.454.319	1.451.629	1.222.103	1.487.020	1.532.863	3	8.639.069
Erabiltzaileen kuotak	76.173	59.560	56.095	45.482	52.052	43.249		332.611
Kontratuko gastu garbia	2.145.725	2.141.643	2.187.841	1.845.464	2.264.278	2.560.264		13.145.216
Zaintzapeko etxebizitza								
Kontratua	223.842	257.383	273.523	251.208	273.673	274.045	22	1.553.674
Erabiltzaileen kuotak	39.233	73.475	82.352	65.938	76.705	87.785		425.487
Kontratuko gastu garbia	184.609	183.907	191.172	185.270	196.968	186.261		1.128.187
ZLPak	52.963	95.095	121.670	210.363	292.609	376.803	611	1.149.503
GUZTIRA	237.572	279.002	312.842	395.633	489.577	563.064	137	2.277.690
Etxebizitza gainbegiratua								
Kontratua	48.867	49.769	49.932	41.725	49.958	169.739	247	409.990
ZLPak		31.628	37.960	166.560	185.894	628.759	-	1.050.800
Guztira	48.867	81.397	87.891	208.284	235.852	798.498	1534	1.460.789
EHSOZ (esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua)								
Kontratua	431.760	431.760	431.760	374.442	492.297	495.793	15	2.657.812
Familia eta gizarte integratze laguntza ⁽²⁾								
Dirulaguntza	183.691	203.605	212.649	233.279	230.272	232.225	26	1.295.720





ITUNA/ZLPak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 19/14	Guztira 2014-2019
Zentro okupazionala								
Kontratua	1.420.548	1.734.200	1.734.200	1.734.200	1.734.200	1.806.200	27	10.163.548
Ituna/hitzarmena/dirulaguntza, guztira (gastu garbia)	6.270.032	6.631.882	6.686.340	6.147.083	6.891.582	7.311.837	17	26.793.539
Erabiltzaileen kuotak, guztira	794.544	784.454	795.615	654.658	820.635	862.480		4.712.387
ZLPak, guztira	1.964.613	2.280.185	2.566.170	3.005.345	3.628.909	4.352.668	122	17.797.890
PAGNaren gastua GM baliabideetan, guztira (kontratuen garbia + ZLPak)	8.234.645	8.912.066	9.252.510	9.152.428	10.520.491	11.664.505	42	49.303.816





11. eranskina. GMLen arretarako baliabide sozial eta soziosanitarioetako plazak

Baliabide mota	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/2014
NMLa duten pertsonentzako egoitza laguntzaduna							
Plaza itunduak	82	82	82	82	82	82	0
ZLPak	74	86	96	103	120	128	73
Guztira	156	168	178	185	202	210	35
Etxe-egoitza							
Plaza itunduak	25	25	25	25	25	25	0
Larrialdietarako plaza	-	-	-	-	1	1	-
EPSZ eguneko zentroa							
Plaza itunduak	135	135	135	135	135	135	0
EPSZ programak							
Plaza itunduak	158	158	171	171	171	171	8
Zaintzapeko etxebizitza							
Plaza itunduak	18	22	22	22	22	22	22
ZLPak	4	8	12	16	16	22	450
Guztira	22	30	34	38	38	44	100
Etxebizitza gainbegiratua							
Plaza itunduak	4	4	4	4	4	8	100
ZLPak	0	4	4	19	19	42	-
Guztira	4	8	8	23	19	50	1150
Etxebizitza laguntzaduna							
Plaza publikoak	4	4	4	4	4	5	20
Guztira	4	4	4	4	4	5	20
Familia eta gizarte integrazioarako laguntza							
Pertsona onuradunak	34	37	39	43	42	43	26
EHSOZ (esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua)							
Plaza itunduak	221	221	221	221	221	221	0
Zentro okupazionala							
Plaza itunduak	205	215	215	215	215	215	5
Plaza itunduak, guztira	882	899	914	918	918	923	5
Plaza publikoak, guztira	4	4	4	4	4	5	20
ZLPak, guztira	78	98	112	138	154	197	153





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Osasun Mentalari buruzko 2014-2019 aldiko fiskalizazio txosteneko aldaketak egiteko zirriborroa aztertu ondoren, PAGNAtik alegazio hauek proposatu nahi ditugu:

– 13. orrialdean, IV. atalean (Konklusioak eta gomendioak / Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna), esaldi hau aldatzea:

“PAGNaren ardura da nahasmendu mental larria duten pertsonentzako baliabideak kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean”

Horren ordez, hau jartzea: “PAGNaren ardura da nahasmendu mental larria duten pertsonentzako baliabide sozialak eta soziosanitarioak kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean”.

Baliabide sanitarioak (ospitalizazio unitateak, osasun mentaleko zentroak etab.) kudeatzea Osasun Departamentuaren ardura da, Osasun Mentaleko Kudeatzailtzaren bitartez. Horregatik, atal horretako lehenengo esaldian honako hau ere zehaztu liteke: “O-NOZeko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren ardura da programak, baliabideak eta jarduketak kudeatzea...” PAGNAk baliabide sozialak (edo soziosanitarioak) kudeatzeko baizik ez du eskumena.

– 39. orrialdean, 20. lerroan, etxebizitza gainbegiratuko plazen guztizko kopurua (plaza itunduak gehi ZLPa duten plazak) aipatzen denean, 2019ko kopurua (2. zutabea) 47 da, eta ez 50, bertan ageri den bezala.

– Azkenik, konklusioen eta ondorioen atalean, 49. orrialdean, gomendio hau dela eta: “PAGNAk bere gain hartzea GMEL arretako eta San Frantzisko Xabierkoa zentroko plazen kudeaketa, haien definizio soziosanitarioa aintzat hartuta, eta baliabide hori eremu komunitarioago batean kokatzea”, adierazi nahi dugu ezen, nahiz eta beren edukiagatik plaza horiek esparru soziosanitariokoak eta, beraz, PAGNaren eskumenekoak izan behar luketen, hainbat arrazoi direla medio zaila dela epe laburertainean plaza horien ardura hartzea, txosten honetan bertan bistan geratu denez: plaza itunduak urriak dira, bai egoitzakoak eta bai baliabide komunitarioagoetakoak ere (zaintzapeko etxebizitzak); plaza horiek bere gain hartu ahal izateko, PAGNAk gaixotasun mentalerako baliabideen finantzaketaren gehikuntza nabarmenaren beharra izanen luke; beharrezkoa litzateke ingurune horretan denbora luzea daramaten pertsonak lekuz aldatzearen eragina ebaluatzea, bai eta haiek artatzen dituzten osasun langileen lekualdaketa eta esku-hartze osoaren kostua ere. Osasun Mentaleko 2019-2023 aldirako plan berriak, 35. helburuan, ekintza ildo hau definitzen du:

“San Frantzisko Xabierkoa zentroko egoitza unitateak birplanteatzea ingurune komunitario batean. Osasun Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren arteko lantalde bat sortzea”.





Horregatik, planteatutako gomendioaren ordezkari honako hau proposatzen dugu:

“Osasun Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren arteko lantalde bat sortzea, San Frantzisko Xabierkoa zentroko egoiliarak ingurune komunitario batean sartzeko aukerak aztertzeko”.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 31n

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzailea: Inés Francés Román





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna

Aurkeztu dizkiguten alegazioengatik eskerrak ematen dizkiegu Eskubide Soziales-tako kontseilariari eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agenzia-ko zuzendari kudeatzaileari.

Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da. Behin betiko txostenean baliabide sozial eta soziosanitarioen erreferentzia sartu da PAGNaren erantzukizunari buruzko paragrafoan, etxebizitza gainbegiratueta-ko plazen guztizko kopurua zuzendu da 39. orrialdean, eta mantendu egin da gure txostenean proposatutako gomendioa.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

